

## DATORRENA

Pariseko bulegoetatik iritsi da aliantza baten berri... MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3

LAU EGUNEKO LAN ASTEA: Oraindik nagusi izatetik urrun badago ere, zabaltzen ari den joera > 4

2022ko maiatzaren 7a | XVI. urtea • 772. zenbakia  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



## XVI. ETA XVII. MENDEETAKO ALARGUNAK, ASKATASUN POXIA ETA KONTROL BORTITZA

AMAIA NAUSIA PIMOULIER HISTORIALARIAK LUPA JARRI DU DUELA LAUZPABOST MENDEKO NAFARROAKO ALARGUNEN GAINEAN. GARAIKO JENDARTEAN ZORROTZ KONTROLATU BEHARREKO EMAKUMEAK TOPATU DITU; GIZON BATEN KATEETATIK ASKE, ESPERIENTZIA SEXUALAREKIN ETA, KASU ASKOTAN, FAMILIAKO BURU ZIRENEZ, ONDAREAK KUDEATZEN. > 12 Jagoba MANTEROLA | FOKU



**Lau eguneko lan astea gero eta gehiago hedatzen ari da** 04

**Gelak itxita eta eskolak erasopean Ukrainan** 07

**Raul Alarcon de Quesada, argudioa arma nagusi zuen iraultzailea** 08

**XVI. eta XVII. mendeetako alargunak: pobrezia, kontrol soziala eta askatasun poxi bat** 12

**Euskal herri musikako instrumentuen entziklopedia** 17

**Elkarrizketa: Niko Cuenca, ekonomialaria** 22

**In fraganti: Ane Baranguan** 27

**Juantxo Egañaren behatzulotik** 31



**SINADURAK:**

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:** Pariseko bulegoetatik heldu da aliantza baten berri...
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Eskakizunak
- 11 **Iñaki Altuna:** Beti iturburu berera iristeko bueltaka: nazio auzira
- 16 **Unai Gaztelumendi**
- 20 **Ana Elozegi Serna:** Anita Parker
- 21 **Iker Barandiaran:** Zertarako idatzi?
- 26 **Miren Azkarate Badiola:** Festa paganoak berreskuratzen
- 26 **Antton Izagirre:** Identitate berriak
- 30 **Maidar Azanza Sese:** Software berdea, guztion erronka



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

# Pariseko bulegoetatik heldu da aliantza baten berri...

**M**aiatzaren 7 honetan abian emanen du Emmanuel Macronek bere bigarren agintaldirako bide orria. Konplexurik gabeko liberalak zamaz beteriko garai-pena eskuratu zuen iragan apirilaren 24an. Orain bost urte, aldiz, presidentetzarako hauteskunde ondotik heldu ziren boz legegileek tramite huts baten itxura hartu zuten. Eliseora heltzeko jasotako sostenguak eskertzeko baliatu zuen Macronek 577 barrutietan zerrendaburuak izendatzeko prozedura. Luze joko luke, ezker-eskuin fitxak banatuz orduan osatu zuen gehiengoak utzitako uzta aipatzeak.

Protokoloa zorrotza da presidentearen kargu hartzeari begira. Bestalde, Historiak hala aginduta, Bigarren Mundu Gerraren armistizioaren urteurrenak mandatu berriaren hasierako keinuak markatuko ditu. Horrela, maiatzaren 8an «desagertutako soldadua» oroitzeko zeremonian parte hartuko du bertze bost urtez estatuburu izateko baldintzapeko enkargua jaso duen mandatariak. Finean, Macronek berak behin baino gehiagotan aitortu duenez, sostengu parlamentario nahikorik ez duen presidenteak eskuak lotuak dituelako. Izan ere, azken hamarkadotan eredu presidentziala are presidentzialago bilakatzeko plantan eman ziren erreformek bazuten helburu argia: Eliseoko lehiaren irabazleari bere gobernuaren bizkarra zaintzeko funtzio nagusia duen gehiengo parlamentarioa bermatzea. Patu hori haustea xede, oso denbora gutxian gainera, bere karta-sorta aldatzeko parioa egin du ezker hexagonalak. Gauzak horrela, orainaldi ilunari argi izpia ezarri nahian batasun berria osatu du erlojuaren eta, bereziki, aspaldiko ezinkusien aurkako lasterketa libratu ondoren.

Behinik behin Frantzia Intsumisioa, Europe Ecologie-Berdeak, Alderdi Komunista eta Alderdi Sozialista aterpetuko dituen fronteak Herri Batasun Ekologista eta So-

zial Berria izanen du lema. Basamortua aiseago igarotzeko, Historiaren iturriarekin egarrria asetzeko hautua egin du aspalditik gainbeheran den frantziar ezkerak. Ardatz politikoa eta mediatikoa inoiz baino eskuinerago dauden garaiotan, 86 urteko atzera begirada proposatu dute akordioaren sustatzaileek. Hain zuzen ere, 1936ko maiatzaren 3an, ezkerreko indarrak batu ondoren, hauteskundeak irabazi zituen Herri Frontearen eskutik heldu ziren aitzinamendu sozialak oroitaraziz.

Hauteskunde barrutien gaineko banaketari buruzko negoziazioaren amaieran, ezker hexagonalaren parametroetan marrazturiko mapa osatu dute aliatu berriek. Baita gutxienerako programa baten gaineko lerro nagusiak finkatu ere. Indarrak batzeko ahalegina formula arrakastatsu bilakatuko dela sinetsita, berehala akordio-

Erlojuaren eta ezin ikusien aurkako lasterketa irabazita ezker hexagonalak erdietsi duen akordio historikoak izan dezakeen ahalmen berritzailea lurraldeen araberrako dinamikak frogatu beharko du

aren lurreratze faseari ekinen diote. Esperantza piztearekin batera abagune berria irekitzeko aukera baliatu nahi izanez gero, ordea, mapa mutu baten gainean aritzetik harago, lurraldeka dauden egoera ezberdinak eta, batez ere, berezko ibilbide eta agendak errespetatzea etapa saihetsezina dela barneratu behar lukete. Etxe berean energia nuklearraren alde eta eta kontra direnak elkartzeko gai den fronteak, Estatuaren barruan/pean dagoen kultur aniztasunaren eta dinamika politiko ezberdinen aurrean jokabidea eguneratzeko parada profitatuko du? Edo Pariseko moldea orokortzeko xedez Ipar Euskal Herrian ehundutako akordio zabaletatik at kokatuko du bere burua? Aurreiritziak zartzatzeko garaia heldu dadila.

# OSTIRALA, EZ GOAZ LANERA

Oraindik nagusi izatetik urrun badago ere, lau eguneko lan astea gero eta gehiago hedatzen ari da munduan

📁 JENDARTEA / Aitor AGIRREZABAL

Lan malgua, lanaren eta bizitza pertsonalaren arteko oreka handiagoa ahalbidetuko duena, eta osasun mentala izango dira datozen urteetan enpresek eta lan merkatuak izango dituzten erronka nagusietako bi. Paradigma tradizionala zalantzan dagoen unean gaude. Eta, bestetik beste, pandemiak ere eragin du hori. Telelana izan daiteke aldaketa horren egungo eredu nabarmenena, baina beste bat kozinatzen ari da munduan barna: lau eguneko lan astea.


**B**artzelonako La Canadiense enpresa elektriko beharginek greba entzute-tsua egin zuten 1919an, 44 egunez luzatu zena eta garai hartako espainiar Go-

bernuak egunean 8 ordu eta astean 40 ordu lan egitea legez arautzea eragin zuena. 103 urte igaro dira eta neurri hark bere horretan jarraitzen du.

Hori aldatzeko tenorean, baina, gero eta ikerlari, langile, enpresa eta ekimen gehiago

Telelana ohiko bihurtu zuen pandemiak eta, bide batez, lan munduan ezarritako paradigma zalantzan jarri zuen.  
GETTY IMAGES

daude. Ez dago eredu jakin bat, baina dagoeneko herrialde asko dira bide horretan jarri direnak, proiektu pilotu ezberdinekin. Manel Fernandez Jaria, UOC Kataluniako Unibertsitate Irekiko Ekonomia eta Enpresa Ikasketen irakasle laguntzailearen iritziz, laneko «paradigma tradizionala zalantzan dagoen une batean gaude». Enpresak lan egiteko modu berriak aztertzen ari dira. Valentzian, adibidez, proba pilotuak egiteko baliabideak bideratzen ari dira, lan astea lau egunera murrizteko, zortzi orduko lanaldia eta bost eguneko soldata mantenduz. «Eredu hori ezarri duten enpresek



produktibitatea handitu du te», aipatu du Fernandezek, nahiz eta onartu «ikerketek denboran luzeagoak» izan behar dutela oraindik ere.

Islandiak eredu bat probatu zuen 2015 eta 2019 artean, orain arteko esperimenturik handiena. Lan astea 40 ordu-tik 35era murriztu zuen, eta soldatei eutsi zien. 2.500 lagunek parte hartu zuten probaldian, guztiak funtzionarioak. Probak izandako arrakastaren ondorioz, herrialdeko langileen %86 lau eguneko lan astera aldatu dira. Lau eguneko lan astea babesten dutenen argudio nagusietako bat produktibitatea handitzen dela da. «Ebidentzia batzuen arabera, azken 150 urteotan produktibitateak %2.000 egin du gora eta langileek enpresei zerbitzu ematen emandako orduak %40 inguru murriztu dira. Beste era batera esanda, langileek lan gutxiago eginez askoz gehiago ekoiztea lortu dute», zehaztu du Valentziako Unibertsitateko Lan Zuzenbideko irakasle Fernando Trujillo Ponsel. «Murrizketa horrekin, denbora gehiago eman dezakete langileek sozializatzen, asebetetzen dituzten planak egiten edo etxeko lanak hobeto antolatzen. Eta ez dira hain estresatuta sentitzen, baizik eta energia gehiagorekin».

Izan ere, produktibitateaz gain, lan baldintzak ere kon-tuan izan behar dira. «Japoniak edo Zeelanda Berriak, 2018tik, lau egunera murriztu dute lan astea, eta, gainera, enpresek irabazi handiak izan dituzte produktibitate handi-goari esker, baita estresa eta nekea murriztu direlako ere. Baieztapen hori ikerketa garrantzitsuetan berresten da, astean lau egunez lan egitearen onurak erakusten baitituz-



te: *burnout* gutxiago, kontziliazio handiagoa eta produktibitate berdina». Islandiako emaitzei so eginez, gainera, laneko bajak nabarmen gutxitu direla ikus daiteke. «Lan istripuak ohikoagoak dira lanaldi luzeekin, lan nekeak eraginda arretak behera egiten baitu».

Eskozia ere lau eguneko lan astea probatzen ari da egun, eta Estatuak 10 milioi liberako (12 milioi euro inguru) laguntza ematen die enpresa parte hartzaileei. Bestalde, Suedian, 2015ean, lau eguneko astea probatu zuten, soldata berdinarekin, eta emaitzak desberdinak izan ziren. Enpresa batzuek bakarrik erabaki zuten lau eguneko lanaldia mantentzea. Lituaniak ere lau egun eta 32 orduko lan astea arautu berri du, soldata murriztu ga-

Industria sektorea da, oraindik, lau eguneko lan astera gutxien gerturatu dena. Gehien hurbildun direnak, berriz, funtzionarioak dira.

GETTY IMAGES

be. Hori bai, kolektibo jakin batentzat egin du: hiru urtetik beherako seme alabak dituzten funtzionarioentzat.

#### BELGIKAKO «TRANPA»

Azken berriak Belgikatik heldu dira. Bertan ere lau eguneko lan astea indarrean jarriko dute hala eskatzen dutenentzat, baina, aldiz, langileek ez dute lan gutxiago egingo. Lau egunetan banatutako 32 lanorduko aste baten aldeko apustua egin beharrean (orain arteko esperimentu gehienetan egin bezala), Belgikako planak 40 ordu lau egunetan banatuta lan egitea proposatzen du. Hau da, lanorduek egun gutxiagotan pilatuko dituzte langileek, hala nahi badute. Proposamenak honakoa ere jasotzen du: langileek malgu-

tasunez erabaki ahal izango dute astean lau edo bost egunez lan egin nahi duten. «Tranpa» UOCeko irakaslearen arabera. «Lau egun lan eta lan aritu eta bosgarrena parrandan emateak ez du zentzurik. 10-12 orduko lanaldiek ez dute inolako produktibitate-terik. Belgikak egin duena ez da bultzatu beharreko ideia». Trujillo ere ez dator bat Belgikako egitasmoarekin. «Orduak kontzentratzeak ez du balio lan arriskuak saihesteko, ez eta lana eta familia uztartzeko edo langileen bizi kalitatea hobetzeko ere. Egunean 10 ordu lanari eskaintzeak ondorio kaltegarriak izan ditzake langileengan, osasun fisiko eta mentalaren ikuspegitik, bai eta enpresetan ere, errendimenduaren, produktibitatearen eta absentismo mailen ikuspegitik. Langileei mesede egiteko, gutxiago lan egitea lortu beharko litzateke, inolaz ere ez egunean ordu gehiago egitea».

Zeelanda Berriko Perpetual Guardian enpresa fiduziariora izan zen lan agenda berria ezarri zuen lehenetakoa. Enpresak egindako eta Aucklandeko Unibertsitate Teknologikoak monitorizatutako azterlan baten arabera, langileen konpromisoa eta ahalduntzea areagotu egin ziren. Estres mailak %45etik %38ra jaitsi ziren, eta lana eta bizitza pertsonala uztartzeko aukerari emandako puntuazioa %54tik %78ra igo zen. «Esperientziek erakusten dute produktibitatea eta ongizate indizeak handitzen direla lanean. Gertatzen ari diren aldaketetara irekitako leihoa da», uste du Fernandez Jariak.

Espainiar Estatuan, 2020. urtearen amaieran, Mas Pais alderdiak soldatak murriztuko ez dituen 32 orduko lanaldia



defendatzeko zuzenketa-proposamena aurkeztu zuen. Urtebete geroago, Pedro Sanchezen Gobernuak plan pilotu bat adostu zuen 50 milioi euroekin, iragan martxoan zehaztu zena. Parte hartzen duten enpresek dirulaguntza bat lortu ahal izango dute langileen lanaldi murrizketek eragindako gastuak konpentsatzeko, bai langile berriak kontratatuzko, bai plantillaren prestakuntzarako, bai makina edo material informatiko berriak erosteko.

#### ESPAINIAR GOBERNUAREN PLANA

«Aipatutako zuzenketa aspalditik datorren eztabaidaren emaitza da», azaldu du Trujillok. «Espainian asteko 40 orduko muga ezarritako lanaldia aldatu gabe dago duela mende bat baino gehiagotik. Asteko gehienezko ordu kopurua aldatu eta 32 ordura igarotzekotan, soldata murriztu gabe eta egunean gehienez 9 lanordu eginez, langileen se-

gurtasuna eta osasuna hobetuko litzateke, batez ere ikuspegi mental batetik».

Espainiar Gobernuak aurreikusten du ekainean prest izango duela 32 orduko edo lau eguneko lan astea ezartzeko plan pilotua. Mas Pais alderdiarekin egindako akordioaren ondorioz, 2022ko aurrekontuetan 10 milioi euro bideratu dira, egitasmoa gutxienez beste urte bat luzatze aldera, eta alderdiak darabilen planaren zirriborroak langile bakoitzeko 2.000 eta 3.500 euro arteko laguntzak proposatzen dizkie bertara biltzen diren enpresei. Enpresen aparteko kostuak konpentsatzeko eta digitalizazioaren arloan beharrezkoak diren eraldaketei ekiteko laguntzak dira. Langile bakoitzeko 3.500 euroko laguntza bost eta 20 langile arteko enpresentzat izango litzateke, eta 2.000 eurokoa, berriz, 51 eta 250 langile arteko enpresentzat.

Lanaldiaren murrizketak enpresaren produktibitatean eta kontziliazioaren eremuan dituen onurak aztertzeke plan pilotuaren iraupena gutxienez bi urtekoa izatea planteatzen da. Plan pilotua hainbat sektoretako 200 eta 400 enpresa arteko urkilan probatu nahi da, emaitzak lanaldiak murriztu ez dituzten antzeko beste konpainia batzuekin alderatzeko.

Datu ofizialik ez bada ere, hainbat enpresak ezarri dute jada espainiar Estatuan lau

Hainbat gobernu hasi dira jada lau eguneko astea ezarri nahi duten enpresei laguntzak eskaintzen.  
GETTY IMAGES

**Osasun fisiko eta mentalaren ikuspegitik aurrerapauso bezala ikusten dute adituek lau eguneko lan astea, bai eta produktibitatearen eta absentismo mailen ikuspegitik ere**

**Enpresek plan eraginkor bat izan behar dute, eta adituak diren arduradunen eskutik ezarri behar dute. Gobernuak, aldiz, aldaketak eragindako arriskuak murrizteko ardura dute**

eguneko lan astea. «Eta emaitza positiboekin», zehaztu du Trujillok Madrilgo Francachela enpresa aipatuz. 2020ko maiatzean eman zuen saltoa ostalaritzako enpresak. «Pandemia ren testuinguruan ezin genuen ezer gertatu ez balitz bezala jokatu. Ikasi dugu aldi berean lan egitea eta zaintzea ia ezinezkoa dela, harremanak izateko eta denbora antolatzekeko modu berrietara ohitu behar dugula, pilaketak saihestu eta ingurumena eta bizitza gehiago zaindu behar ditugula», adierazi dute enpresatik. Orain, 2022ko maiatzean, duela bi urte baino 40 langile gehiago dituzte, lanorduak gutxitu eta soldatak mantenduta. Horretarako hainbat neurri hartu dituzte, tartean elaborazio handiegiko platerak kartatik kentzea, tokiko komertzioekin akordioak egitea edo Whatsapp bidezko eskariak indartzea. Beste batzuek, Telefonikak kasu, aukera eman diete langileei lau egunez lan egiteko, baina soldata %15 jaitsiz.

Eraldaketa enpresen barne funtzionamendutik indartu behar dela iritzi du Trujillok. «Enpresek osasun mentaleko plan eraginkor bat izan behar dute, eta hori ezartzen adituak diren arduradunak izan behar dituzte. Enpresek jakin behar dute langileak ulertzen, haiekin enpatizatzen, tresnak eskaintzen, betiere muga batzuen barruan zerbitzuak eman ahal izan ditzaten».

Pandemiak langileak indartu ditu. Behintzat langileek euren bizi kalitatearekin eta osasun mentalaren lotuta duten jarrera. Hori izan daiteke lan munduan aldaketa sakanak emateko motorra. Galga produktibitatearen inguruko zalantzak badira, gobernuak dagokie arriskuak gutxitzea.



Kristina PASHKINA | UNICEF

## IKUSMIRA

# GELAK ITXITA ETA ESKOLAK ERASOPEAN UKRAINAN

Irudia Kharkiveko metro geltoki batean aterata dago, apirilaren 3an. 41 urteko Yuliia Kruhlaia boluntarioak soinketa tailer bat antolatu zuen bertan ezkutatuta asteak daramatzaten umeekin. Gerraren ondorioz, jada 7,5 milioi hurrek utzi behar izan dituzte beraien etxeak Ukrainan. Asko lur azpian, bunkerretan, babestu dira.

Geltoki honetan bezalaxe, beste askotan ere irakasleak, psikologoak eta asialdiko teknikariak gerraren gordintasuna arintzen saiatzen dira. «Pandemiak ekarritako murrizketak eta gero, ikasurtea esperantzaz beteta hasi zuten hurrek, baina modu tragikoan amaituko dute. Ehunka ume hil dira. Eskolak berriro itxita daude, eta kontuan izan behar da krisi egoeretan funtsezkoak diren segurtasuna eta normaltasun apur bat ematen dietela hurrei», esan du Murat Sahinek, Unicefeko ordezkariak. Nazio Batuen agentziak salatu duenez, «Eskola seguruak» programaren barruan martxan ipinitako 89 azpiegiturretatik 15ek kalteak jasan dituzte. Ainaro Lertxundi

{ profila }

# RICARDO ALARCON DE QUESADA

## Argudioa arma nagusi zuen iraultzaile diplomatikoa


**M**aiatzaren Lehenaren bezperan hil zen Ricardo Alarcon de Quesada, Kubako diplomazia prestigiotsuaren adierazle esanguratsuena, noiz eta munduko diplomazia makalaldi larrian dagoen honetan. Jardun horretarako ezinbestekoak diren hitzaren, elkarrizketaren, argudioaren maisu bat joan da. «Kubako iraultzailea, abertzale handia eta berebiziko diplomazialaria, bere obra pasioz eta argudio sendoz defendatu zuena», idatzi zuen Kubako Errepublikako presidente Miguel Diaz-Canelek Twitterreko bere kontuan kidearen heriotzaren berri izan zuenean.

Ricardo Alarcon de Quesada Habanan jaio zen, 1937ko maiatzaren 21ean. 1954an Habanako Unibertsitatean sartu eta luze gabe borroka iraultzaileari lotu zitzaion, Jose Antonio Echeverria buru zuen Unibertsitateko Ikasle Federazioan (FEU). Direktorio Iraultzaileko kolaboratzailea izan zen eta 1955etik Uztailaren 26 Mugimenduko kide. Bertan, gazte brigadetako ikasle aparatua- ren antolatzailea izan zen.

### IRAUTZAILEA ETA ORDEZKARI POLITIKOA

Fidel Castroren gerrillen hiri hegaleko kidea izan zen, eta 1959an Fulgencio Batista boteretik kendu zutenetik, Kubako herriaren ordezkari gisa jardun zuen hamarkada luzez. 1962an, Filosofia eta Letretan graduatu ondoren, Raul Roa kantzilerrak eskatuta, Kanpo Harremanetarako Ministerioan sartu zen Latinoamerikako Zuzendaritzaren ardura hartzeko. Hiru urte geroago, Raul Roak Nazio Batuen aurreko misioaren buru izendatu zuen, 1978ra arte. Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimenduen bilera ugariren buru izan zen eta, aldi berean, Karibeko hainbat herrialdetan enbaxadore.

Hurrengo hamar urteetan Kanpo Harremanetarako ministroorde izan zen, eta 1989an lehen ministroorde izendatu zuten. Garai hartan, 1988 eta 1990 bitartean, Afrikako hegoaldeko bake negoziatioetan Kubako ordezkartzaren



Ricardo Alarcon de Quesada Hernanin, 2005ean hitzaldi batean parte hartu zuenean.  
Jon URBE | FOKU

partaide izan zen. Elkarrizketa haietan eta oro har hainbat herrialde nahasi zitu- en gatazka gordinaren bilakaeran Kubaren parte hartze militar eta diplomatikoak izandako garrantzia gogoratu beharrekoa da. Gogoratu eta txalotu.

### APARTEID ERREGIMENA ETA MANDELA

Gauza jakina da kontakizun ofiziala ez dela beti egiazkoa; maiz, oso maiz, egia erdiek eta are gezur osoek osatzen dute. Hegoafrikako apartheidaren amaiera «mundu libreari» esker lortutako garai-

pen gisa aurkeztu izan da; hala ere, Nelson Mandelak zituen Kubarekiko maitasuna eta mirespena ez zetozen bat kontakizun horrekin, nahiz eta hainbat urtez apartheid erregimena zuritu eta are sostengatu zutenek ez zuten begi onez ikusten haren jarrera.

«Kubatarrak mediku, irakasle, soldadu, nekazaritza aditu bezala etorri ziren gure eskualdera, inoiz ez kolonizatzaile bezala. Inoiz ez dugu ahaztuko internazionalismo desinteresatuaren adibide paregabe hori. Lubakiak gurekin partekatu zituzten kolonialismoaren, azpigarapenaren eta apartheidaren aurkako borrokan. Ehunka kubatarrek eman zuten bizitza, literalki, gurea, ez beraiena, zen borroka batean», esan zuen Mandelak kubatarren gainean. Eta aitorten hori zela-eta jasotzen zituen maiseoez, berriz, honakoa: «Hau egiten dut gure giza jokabideak, moralak, agintzen ditugulako ezin ditugula abandonatu gure herriaren historiako unerik goibelentan alboan izan genituenak. Eta gure adiskideekin leiala izategatik errieta egin didaten hegoafrikarrak, literalki, joan daitezela antzarak ferratzera!».

Adiskide kubatar haietako bat Alarcon zen, bake elkarrizketetan parte hartu zuena, Angolako gerraren amaiera, Namibiaren independentzia eta apartheidaren gainbehera ekarri zituzten elkarrizketetan, hain zuzen. Negoziazioa erabaki zuen batailak, 1987 eta 1988 bitartean Cuito Canabalen Kubako eta Angolako soldaduek Hegoafrikako Armadaren eta Angolako matxinoen aurka lortutako garaipen erabakigarriak, eskualdeko indar korrelazioa aldatu zuela aitortu zuen Mandelak: «zapaltzaile zuriaren garaiezintasunaren mitoa suntsitu zuen».

### LEHEN MAILAKO DIPLOMAZIALARIA

Lehen ministroorde zela, Alarconek NBEn aurreko enbaxadore jardun zuen berriro, 1990 eta 1992 bitartean, eta bi aldiz Segurtasun Kontseiluko buru izan zen. Gaur egun NBEn Segurtasun Kontseiluaren erreformaren aldeko eskakizunek oinarri dituzten



Ricardo Alarcon Habanako Kongresu Jauregian, 2013an.  
Aldaberto ROQUE | AFP

ideia asko haren ekarpena izan ziren, eta 1991n NBERen Batzar Nagusian blokeoari buruzko ebazpen proiektu baten lehen testua idatzi eta aurkeztu zuen. 1992tik 1993ra Kanpo Harremanetarako ministroa izan zen, eta 1993an Herri Boterearen Asanblea Nazionaleko presidente hautatu zuten. Hogei urtez bete zuen kargu hori.

Bere bizitza diplomatiko osoan, eta ondoren ere, AEBekin hainbat negoziatuetan parte hartu zuten Kubako ordezkari burua izan zen, 1984ko, 1994ko eta 1995eko migrazio akordioak sinatzera eraman zutenak barne. 1994an, "Balseroen krisia" bezala bataiatutakoari amaiera eman zion migrazio akordioa negoziatu zuen Clintonen Gobernuarekin, eta zenbait urte geroago funtsezko papera bete zuen Elian Gonzalez haurra Kubara itzultzeko eta AEBetan preso hartutako Kubako "Bost Heroiak" askatzeko gudu diplomatikoetan.

Zalantzarik gabe, Alarcon Kubaren eta AEBen arteko harremanetako aditu nagusia izan zen hainbat hamarkadatan, arerioek ere errespetatutako gizona, guztiek ere lehen mailako solaskidetzat hartua. Beti izan zituen harreman bikainak inguru akademikoekin eta atzerriko prentsarekin, baita AEBetakoarekin ere, entzun beharreko analistatzat jotzen baitzuten guztiek. 2013an utzi zituen Asanblea Nazionaleko Presidentetza eta Alderdi Komunistako Buro Politikoa; hala ere, herrialdeko diplomaziaren erreferente izaten jarraitu zuen. 2015ean, Obamaren garaian sortutako "urtze-aldian", Kubak eta AEBek harreman diplomatikoak berrezartzea erabaki zutenean, Kubako ordezkari ofizialarekin izan zen AEBetako hiriburu zeremonian, eta bere osasun makala aspalditik bidaide bazuen ere, aholkularitza lanetan jarraitu zuen hil arte.

«Ricardo Alarcon de Quesada, gure belaunaldiko diplomazialarien maisuari begirune, miresmen eta maitasun amaigabea gordeko dizkiogu beti. Eskerrik asko haren dizipuluetako bat izatearen pribilegio eta ohoreagatik»,



idatzi zuen Kanpo Harremanetarako ministroorde Josefina Vidalek.

#### EUSKAL HERRIAN

Ricardo Alarconek Euskal Herriarekin ere izan zuen harremanik. Hitzaldi bat ere egin zuen 2005ean Hernanin, Alfonso Sastrearekin eta Josu Juaristirekin.

Hurrengo urtearen hasieran, berriz, Mertxe Aizpurua GARako kazetariak eta gaur egun Madrilen EH Bilduko diputatuak Kuban elkarrizketatu zuen Alarcon. "Zazpika" GARako gehigarrian 2006ko urtarrilaren 26an argitaratutako solasean luze hitz egin zuen bere herrialdeaz eta oro har politikaz. Elkarriketa mamitsu hartan, besteak beste, demokrazia eta kapitalismoa termino antagonikoak direla esan zuen, eta Ku-

bako sistemaren gaineko kritikaz, ezkerreko zenbait sektorek egindakoa barne, kritika kolonialista dela: «Hau da, zuk nire antzik ez duzunez, nireak ez du balio. Eta nork esan dio herrialde garatuetako jendeari, ezkerrekoa izanda ere, eurak direla egiaren jabe? Nik ez diot inori esaten kubatarra bezalako sistema bat aplikatzeko, gure historia desberdina izan baita. Alderdikeriaren defendatzaile horiei ez diet eskatuko gurea bezalako sistema bat edukitzeko».

Kubaren norabidea hizpide, honakoa nabarmendu zuen: «Berdintasuna lortu dugula esan dezakegu, baina gezurra litzateke, esklabo izandako baten seme edo bilobak ez zuelako nirearen pareko bizi-esperientziarik izan. Ez da gauza bera miserian, analfabetismoan edo pi-

laketan jaiotzea edo baldintza hobetan. Kasu batean bestean baino gehiago aurreratuko da, eta jatorrizko desberdintasun horiek ezin dira lege edo erabaki makroekin bakarrik konpondu; beltzari laguntza gehiagarria eman behar diozu, beltza izateagatik desabantaila duelako zuriaren aldean; emakumeari, berdinean, emakumea izateagatik diskriminatuta egon delako. Ez da nahikoa 'denek ikas dezakete' esatea, baizik eta kontuan hartu behar da emakume horrek, beltz horrek, borrokatu beharreko zama duela». Duela hamasei urte bezala egun ere indarrean den gogoeta.

Maiatzaren Lehenaren bezperan joan zen eta biharamunean bere herriak omendu egin zuen Habanako Iraultza-ren Plazan.



**Saioa Aginako Lamarain**  
Psikoterapeuta

## Eskakizunak

osasuna / harremanak / teknologia

3 BEGIRADA:

**G**ure burua maitatzea bizitza osoan iraun beharko lukeen abentura da. Hala ere, gure burua maitatzea ahaztu ez ezik, zabartu ere egiten gara, eta gure burua gaizki tratatu ere egiten dugu. Gizakiok, mandatu bezala jarduten duten narratiba mentalak aktibatzen ditugu maiz, eta lagundu ordez, babesgabe uzten gaituzte: «berandu arte geratzen banaiz, gehiago baloratuko da nire lana?», «ezin dut akatsik egin», «estimatzen al naute lagunek?», bezalako zalantzak sortzen ditu gure buruak, besteentzako «hobeagoak» nola izan gaitezkeen asmatu asmoz.

Gure burua «bikaintasunerantz hobetzearen» ideia ontzat ematen duen gizarte batean bizi gara. Hau da, gure baliabideen gaintetik jardutea eskatzen diguna: dena ematea, eraginkorrak eta hiperproduktiboak izatea. Batzuetan, ia ezinezkoa da arnasa hartzea gizartea hain azkar doanean. Eskakizunez beteta dagoen gizarte batean, zaila da horiei norberaren eskakizunak ez eranstea. Egia da, halaber, une jakin batzuetan, gure ahaleginak muturrera eramateak trebetasun pertsonal berriak garatzeko aukera ematen digula. Horrela, helburuak planteatzeak zentzua ematen dio gure bizitzari, hala ere, arazoa, helburuak lora ezinak direnean sortzen da, dela idealetatik abiatuta sortu direlako, dela ezartzen ditugun helburuak ez direlako errealistak, adibide bezala: «lanera ez naiz inoiz berandu iritsiko» gure buruari esaten diogunean.

Helburu bat lortzeko ezarritako autoeskakizun horrek gure bizitzako arlo guztietan edo gehienetan, perfekzioa lor daitekeen eta lortu behar den uste okerrera eramaten gaitzake. Helburuak markatzea eta horiek lortzeko ahalegina egitea garrantzitsua bada ere, garuna, organismoa bezala, ez dago jarraitutako gehiegizko esfortzurako egina eta gure asmoak muturrera eramateak kalte fisiko zein psikologiko-



Gure buruari egiten dizkiogun eskakizunak zorrotzeak ote dira? GAURB

ak ekar ditzake gure osasunarentzat.

**Autoeskakizuna geure buruari ematen diogun agindua da. Gutxi gorabehera inkontzientea den pentsamenduaren itxura izaten du, hau da, «behar dut» batekin hasten dena.** Autozorrotzagoak izan ohi gara oso sakon ezarrita ditugun balioak eta sinismenak jokoan sartzen diren egoeretan. Autoexijentzia bera ez da txarra, aipatu bezala, beste «osagai» batzuekin batera helburuak lortzeko giltza izan daiteke. Kaltegarri bihurtzen duena, bere zurruntasuna da. Modu sinplean esatearren, autoeskakizunak zurrun eta malgu gisa sailkatuko bagenitu, zurrunak kaltegarriak izango liriateke eta malguak mesedegarriak.

Adibidez, batzuek uste dute lerro perfekzionista bati eusten ez bazaio, orduan zarkerian eta kaskarkerian eroriko direla. Bi muturrak bakarrik existituko balira bezala: perfekzioa edo deskuidua. Tarteke puntu asko daudela ahazten dute eta gizakiak garela, ez hutsik gabeko makinak. Buruan ditugun ideal mentalak, askotan ez dira errealitateara egokitzen. Malgua izateak geure buruari esaten dizkiogun gauza asko zalantzan jartzea dakar. Adibidez, gure autoexigentziek gure hazkunde eta ongizate gaitasuna nola higitzen duten jabetzea esan nahi du. Horiekin, erruz eta beldurrez betetako aginduekin, gure sormena eta bizi-bulkada murrizten ditugu, libreagoak, eta seguruagoak izan nahi dugu, errealitatea sortzeko oztopoak eratuz. Perfekzionismoa ez da «onena» bilatzea, gure «okerrera» jazartzea baizik, egiten dugun ezer ez dela inoiz nahikoa izango esaten digun zatia. Gure buruarekin komunikatzeko modua aldatzea ariketa terapeutikoa da. •

saioaaginako@gmail.com

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

# Beti iturburu berera iristeko bueltaka: nazio auzira

**P**egasus espioi sistemak astindu ditu oraingo honetan bazterrak. Euskal Herriko eta Kataluniako hainbat independentistak espioitza jasan dutela jakin zen lehen kolpean, eta segidan Espainiako Gobernuko presidentearen eta Defentsa ministroaren telefonoetan ere Pegasus delako hori sartu zutela jakinarazi da. Hipotesi ezberdinak zabaldu dira, baina betiere mugatuak, Pegasus soilik gobernuak/estatuek erabil baitezakete. Edonola ere, bi kontutan zalantza gutxi dago: espioitza ilegala ere izan zela eta, independentisten kasuan, CNIk egin duela. Espainiako Gobernuko kideen kasuan, bistan denez, espioitza hori legez kanpokoa izan zen, baina egilea nor izan ote zen ez dago hain garbi: beste estatu batek edo Espainiako Estatu barruko egitura batek. Zaila izango da hori argitzea.

Edonola ere, ipurdia agerian geratu da Gobernuak, espioitza egin delako eta espioitza ilegala izan delako. Berak agindutakoa izan bada, ez litzateke oso itxurosoa PSOEk berriro ere Estatuaren estoldetara jo duela egiaztatzea, oraingo honetan nolabaiteko lankidetzaren duen aldeei ezkutuko jarraipena egiteko; eta berak ezer jakin gabe egin bada, irakurketa penagarria litzateke, erakutsiko lukeen kontrol faltagatik.

Krisi politiko hau handitu edo baretuko ote den ikusteko dago oraindik, eta zer ondorio izan ditzakeen zaila da neurtzea, aktore ezberdinak baitaude jokoan: batetik, Gobernuak krisiari eusteko izan dezakeen gaitasuna eta adorea; bestetik, Gobernuak zuzenki edo zeharka sostengatzen duten indarren erreakzioa –bereziki katalanena–; eta azkenik, estatu egiturekin hain lotura estua duen eskuineko eta ultraeskuineko oposizioaren jokabidea. Beti aholka-

tu izan da bainuontzitik ur zikina (estatuen estoldetakoa) bota behar dela, baina berarekin haurra (legealdi honetan oraindik egin daitezkeen aurrerapenak) ere bota gabe. Gai izango ote dira horretarako? Hipotesi okerrena ere, oso litekeena dena, ezin daiteke baztertu: haurra botatzea eta ur zikina bainuontzian geratzea. Hori izan da berezko joera Espainian.

Unean uneko azterketetatik eta mugimenduetatik harago, sakoneko hausnarketa egitea ere garrantzitsua da. Merezki du. Azken batean –ez dugu gure burua engainatuko–, espioitza egoteak ez gaitu euskal herritarrok bereziki harritu edo aztoratu. Joxi eta Joxeanen gorpu txikituak karea botaz lurperatu zituen eta orain familiei dirua eskatzen dien Estatuaz

Beti aholkatu izan da bainuontzitik ur zikina (estatuen estoldetakoa) bota behar dela, baina berarekin haurra (legealdi honetan oraindik egin daitezkeen aurrerapenak) ere bota gabe

ari gara. Tortura eta gerra zikina erabili izan duen Estatuak nola ez ditu, bada, espioitza sistemak erabiliko?

Eta hortxe dago, berriro ere, aferaren gakoa, muin-muineko arazo politikoak; gatazkaren oinarrian dagoen nazio auzia, hain zuzen. Euskal Herriaren ukazioak eragiten duena; Estatuak eutsitako ukazioa, hain zuzen. Eta horri adostutako aterabide demokratiko bat ematen ez zaion bitartean, edo euskal herritar eta eragileek kate hori independentziaren bidean hausten ez duten bitartean, pasarte ilunak behin eta berriro errepikatuko dira. •

# ALARGUNAK XVI. ETA XVII. MENDEETAN

Senarraren heriotzak pobrezia eta kontrol soziala zekartzan, baita askatasun poxi bat ere

**A**maia Nausia Pimoulier Historian dokto-rea da eta tesia XVI. eta XVII. mendeetako Nafarroako alargunen inguruan josi zuen. Orain, berriz, tesi mamitsu horren laburpen bat ondu du Txalaparta argitaletxearekin. «Ni casadas ni sepultadas. Las viudas: Una historia de resistencia femenina» izenburuarekin datorren lanak hortxe jartzen du fokua, XVI. eta XVII. mendeetako Nafarroako alargunen gainean. Baina nahikoa da bista pixka bat altxatzea gaurko lokatz asko ordutik datozela konturatzeko. «Nire asmoa edo historiarekiko interesa hortik doa; gaur egungoa ulertzeko gakoak lortzea. Gainera, patriarkatuak nola funtzionatzen duen eta diskurtso batzuk nola erakitzen diren ulertzeko gako asko XVI. mendean daudela uste dut», azaldu du GAUR8ko kolaboratzaileak. Historia eta historiografia tradizionalaren inguruko liburuetan, hitzaldietan, erakusketetan, ikasmaterialetan... gizonezkoak protagonista diren eremuak dira nagusi. «Historia politikoa, instituzionala, erregeen bizitza, noizbehinka erregearen baten bizitza... Baina, orokorrean, gizonezkoak protagonista izan diren historiaren parte kontatu digute. Nire interesa beti izan da emakumeok protagonista izan garen eremu horiei buruz hitz egitea. Esan izan zaigu ez gara protagonista izan, baina kontua da begirada aldatu behar dela. Badaude beste eremu batzuk garrantzirik eman ez

 **HISTORIA** / Amagoia Mujika Telleria

XVI. eta XVII. mendeetan Nafarroako emakume alargunek bizi zuten egoeraren gainean jarri du lupa historikoa Amaia Nausia Pimoulierrek. Jendarteak zorrotz eta bortitz kontrolatzen zituen, garaiko begiratuaren arabera arriskutsu egiten zituzten ezaugarriak zituztelako: gizonik gabe egotearen askatasuna, esperientzia sexuala eta, askotan, ondarea kudeatzeko gaitasuna.



**Amaia Nausia Pimoulier** historialaria, «Ni casadas ni sepultadas. Las viudas: Una historia de resistencia femenina» izeneko liburuaren egilea.  
Jagoba MANTEROLA | FOKU

zaienak, hain zuzen ere emakumeak egon garelako hor. Historiaren bazterretan geratu bagara emakumeak, alargunak bazter horien bazterretan geratu dira eta horregatik iruditzen zitzaidan interesgarria».

Eta zergatik XVI. eta XVII. mendeak? «Historialari bezala oso interesgarriak iruditzen zaizkit, gaur egun ditugun egi-

ko diskurtsoak erabiltzen dituen... interesgarria da. Eta batez ere, ikustea emakumeentzat zein bortitzak izan ziren mende horiek, atzerapauso asko izan genituelako. Iruditzen zitzaidan oso ongi islatzen zutela patriarkatuaren errotzea une horretan».

Hartara, testuinguru horretan, XVI. eta XVII. mendeetako alargunak «arriskutsuak» ziren sistemarentzat. «Gizonik gabeko emakumeak ziren eta hein batean askeago izan zitezkeen. Hala ere, aldi berean, askatasun horrek kontrol zorrotzagoa ekartzen zuen. Figura bezala interesgarria iruditzen zitzaidan txanponaren bi aldeak biltzen dituelako. Bateik, mina dakar eta gogorra da; galera, tristura eta kasu gehienetan, pobrezia zekarrelako. Baina, bestetik, beren bizitzan lehen aldiz erabakitze gaitasuna izatea ekartzen zien alarguntasunak. Konplexua da alarguntasuna eta interesgarria horregatik».

## TXANPONAREN BI ALDEAK

Senarraren heriotzak orokorrean pobrezia ekartzen zien emakumei. «Berdin zen zein egoera ekonomiko zuen emakume horrek, azkenean gizarte patriarkal horretan iturri ekonomiko nagusia gizonaren lanaren bidez lortzen baitzuen familia horrek. Galera horrek askotan pobrezia eta mendekotasuna zekartzan. Oso egoera latzak bizi izan zituzten». Babesgabetasun sentsazioa eta jendartearen erabateko kontrola sufritzen zituen alargunak bere azalean. Bestetik, askatasun modukoa ere bazekarren alarguntasunak, jabetzen ardurara eta kudeaketa emaztearen esku geratzen zirelako. Hortik «txanponaren bi aldeak» aipatzea, estuasuna eta askatasuna.

tura mental asko garai horretan erakitzen direla uste dudalako. Oso atzetik datozen kontuak dira, baina XVI. eta XVII. mendeetan errotzen dira. Estatu moderno eta gaur egun European ditugun estatu gehienak XVI. mendean sortu ziren; estatu hori nola eraikitzen den, jendea diziplinatze-ko eta doktrinatzeko zer-nola-

Nausiaren hitzetan, «emakumeak historian zehar beti klasifikatuak izan gara gertuen zegoen gizonarekin gertuen harremanaren arabera. Beti ginen norbaiten alaba, norbaiten emaztea edo norbaiten alarguna. Alarguntasunak, gizonaren falta horrek, nolabaiteko askatasuna ematen zion emakume horri. Ez zegoen gizon baten mende, ez aita ez senarra, eta nolabait bere kabuz har zitzakeen bere erabaki propioak ondasunen inguruan, bere bizitzaren inguruan... auzitegietara ere beren izen propioz joaten ziren borrokatzera. Lan eremuan ere izan zituzten zenbait egoera berezi beste emakume ezkondu edo ezkongabeek bizitzen ez zituztenak. Kontraesankorra bada ere, alarguntasunak pobrezia eta mendekotasuna zekarren, baina, beste alde batetik, askatasuna ere bazekarren».

#### EMAKUME BORROKALARIAK

Epaitegietan XVI. eta XVII. mendeetako alargunen inguruko informazio asko topatu du ikertzaileak, «hori izan da seguruen nire informazio iturri nagusia». Nafarroako Artxibo Orokorrean tribunales reales deiturikoetan topatutako epaiak miatuz ulertu ditu garaiko egoera asko. Aipatutako bi mende horietan Nafarroako Artxibo Orokorrean 150.000 prozesu judicial inguru daude eta horietatik %12k alargunak dituzte protagonista. «Horrek esan nahi du oso figura auzilariak zirela, beren eskubideen alde borrokatzen zutela epaitegian. Alargun asko agertzen dira beren ondare eskubideengatik borrokan; usufruktua, dotea... Beste asko beren seme-alaben tutoretzaren harira borrokan. Askotan ikusten ditu-



gu beraiek protagonista bezala edo askotan beraien kontrako auziak, batez ere jokabidearekin lotutako kontuengatik; ohorea, adulterioa, sorginkeria... horrelako salaketak ugarriak ziren alargunen kontra. Horrek erakusten digu batetik borrokalariak zirela eta, bestetik, beren askatasun horrek kezka sortzen zuela gizartean eta beren inguruan kontrol zorrotza zegoela, baita kontrol juridikoa ere».

#### ALARGUNAREN IDEALA

Alargunaren figurak, beraz, kezka handia sortzen zuen garaiko gizartean eta haien gainerako kontrola zorrotza zen. Alargunaren idealak pisu handia zeukan; zenbat negar egin behar zuen eta nola, zenbat denbora iraun behar zuen lutoak, nola jantzi behar zuen, nola hezi behar zituen seme-alabak...

«Liburua irakurri dutenek esan didate itogarriak direla emakume horien inguruan in-

terroon gainean, XVI. mendeko margo bat. Bertan alargun talde bat ageri da elkarrekin hizketan. Eskuinaldean, Mariana de Austria erregina alarguna, 1669an egindako erretratu batean. GAUR8



posatzen ziren arau horiek guztiak. Bere alarguntasuna gizartean nola erakutsi behar zuen agintzen zioten emakumeari, baina baita bere sentimenduek nolakoak izan behar zuten ere. Kanpotik eta barrutik kontrolatzen zen alarguna», azaldu du Nausiak.

Negarraren kontua, esaterako, oso argigarria da. «Alargunei eskatzen zitzaien negar egitea. Baina negar gutxi egiten bazuten, susmagarriak ziren. Liburuan badago kasu bat. Senarra hil eta herrikoak agertu ziren etxera. Haien ustez, alargun horrek ez zuen egiten negar senarra hiltzean egin behar zen bezala, 'alargun on' bategi egingo lukeen bezala. Bere sentimenduak ez omen zirenez nahikoa tristeak, susmagarritzat hartu zuten eta esan zuten berak hil zuela senarra. Aldiz, negar gehiegi egiten bazuten, orduan apaizek esaten zioten ez zuela sinisten Jaungoikoan, hil ondorengo bizitza horretan, eta kristau txarra ze-

la. Sentsazioa itogarria zen inoiz ez zelako nahikoa. Berdin zen zer egiten zuen, alde batera edo bestera, alarguna epaitua izango zen».

#### JANZKERA ERE NEURRITSUA

Garaiko gizarteak agintzen zuen nola jantzi behar zuen alargun onak, alargunaren ideal zurrun horren barruan. «Pentsatu behar dugu garai horretako jendartea analfabetoa baldin bazen ere, gu baino gaitasun handiagoa zeukala sinbologia irakurtzeko. Eta janzkerak sinbologia handia zeukan, oso garrantzitsua zen pertsona horren maila soziala, egoera zibila... jakiteko. Garrantzia handia ematen zioten horri. Alargunekin, berdin. Esaten zitzaien umiltasunez jantzi behar zutela, beltzez eta grisez, arreta piztu gabe, kolorerik gabe. Nolabait, senarra hiltzen zenean emakumeak desagertu egin behar zuen. Bere bizitzak dagoeneko ez zuen baliorik. Senarrak emazteari

jabetza zigilu bat jarri izan balio bezala zen, eta zigilu horrek berekin jarraitzen zuen bizitza guztian. Senarra hilda-koan, emakumearen bizitzak ez zuen hainbeste balio eta eskatzen zitzaion ia desagertzea. Bere janzkeran ere hori islatu behar zuen: 'Nire senarra hilda eta ja ez naiz ia existitu ere egiten'. Janzkerari baliagarria zen hori islatzeko».

#### AMATASUNAREN BIDEZKO KONTROLA

Alargunak epaitu behar horretan, ama bezala ere gogor epaituak ziren. Senarraren faltan, alargunari esaten zitzaion aitararen eta amaren papera hartu behar zuela. «Garai hartan bazegoen ustea –eta nik uste dut oraindik badagoela– emakumearen maitasuna emozionalgia zela, fisikoagoa. Aldiz, aitzak arrazoia jartzen duela eta mutiko bat hezteko garaian, hobe zela aitaren rol hori izatea. Alargunen ardura bikoitza zen zentzu horretan, gabezia hori bete behar zutelako. Neskatilekin ere ardura handia jartzen zen alargunen bizkarrean. Nolako ama, halako alaba. Indar handia egiten zen alaba hori hezi zezan emakumeen lanak zirenetan; amatasuna, zaintza... Amatasunaren bitartez ere kontrol izugarria zegoen alargunengan. Esaten zitzaion seme-alabak izanez gero, hori zela beren ardura nagusia, ama izatea. Amatasunaren bidez agian gizarte horretan leku on bat izan zezaketela, beren gaineko iritzia ona izan zitekeela».

#### ESPERIENTZIA SEXUALA ZUTENAK

Alargunak esperientzia sexuala zuten emakumeak ziren eta horrek kezka handia sortzen zuen garaiko gizartean. Amaia Nausiak azaldu duenez, «kastitatearen kontua aspalditik da-



tor, patriarkatua sortu zenetik. Kastitatearen bidez emakumearen erreproduktzioarako gaitasuna kontrolatu nahi da. Nik zure jarrera sexualak kontrolatzen baditut eta esaten badizut zure sexualitateak ezkontzari eta erreproduktzioari bakarrik lotuta egon behar duela, zu kontrolatzeko modu bat da. Baita seme-alaben jabetza senarrarena dela ziurtatzeko ere. Gainera, XVI. mendean krisi demografiko eta ekonomiko bat bizi zuten. Estatu modernoa sortzen ari zen ga-

**«Alargunak ez zeudenez gizon baten mende, arriskutsuak ziren. Are gehiago, esperientzia sexuala zeukaten, ezkonduak egon zirelako. Gainera, askotan esaten zen histeria zeukatela»**

**Nafarroako artxiboan XVI. eta XVII. mendeetako 200 bat prozesu judizial daude alargunekin eta gremioekin lotuta. Horietan alargunek gremioen kontra borrokatzen dute**

Lerroon gainean, emakume bat jendaurrean zigortua izaten ari den unea. Lizarran jasotakoa da. Eskuinaldean, Murilloren «La Dolorosa», garaiko alargunaren idealaren ispilu. GAURB



rai horretan estatuarentzat eta sortzen ari zen sistema kapitalistarentzat beharrezkoa zen herritar asko egotea, eskulan asko. Krisi demografiko horren aurrean jaiotze-tasen kontua estatu kontu bat bilakatu zen. Horregatik, une horretan emakumeak amatasunaren ideal horretan hezten ziren: beren betebeharra amaitzea zen. Emakumeen sexualitateak erabat amatasunari bideratuta egon behar zuen eta hortik aparteko guztia zigortu beharreko zerbait zen».

Testuinguru horretan uler-tzen ditu historialariak zenbait diskurtso oso biologizista, emakumeak gizon baten mende egon behar zuela justifikatzeko sortuak. «Esaten zen emakumeak pasionalak zirela eta, gainera, ez zutela pentsatzeko gaitasunik. Ez zuten pentsatzeko gaitasunik beren sorreratik bertatik. Juan Luis Vivesek esaten zuen emakumearen sabela beroa baldin ba-

zegoen gizonetzkoaren hazia jasotzeko unean, mutil bat sortzen zela. Aldiz, sortzeko une horretan emakumearen sabela ez bazegoen behar bezain bero, neskato bat sortzen zela. Alegia, bero faltagatik emakumearen burmuina ez zela garatu behar zuen bezala eta bidean geratu zela, gizon izateko saiakera horretan. Horren arabera, emakumea ez zen iritsi gizon izatera bero faltagatik eta gizaki inperfektua zen sorreratik bertatik, pentsatzeko gaitasunik gabekoa».

Hortik abiatuta, XVI. eta XVII. mende horietan pentsatzen zen emakumeak ezin zuela pentsatu eta ezin zituela bere pasioak kontrolatu. Ondorioz, gizon baten mende egon behar zuen; aita, senarra, Jaungoikoa... «Gainera, tentagarriak ziren gizonetzkoentzat eta haiek gaizki egiten bazuten, errua emakumearena zen; tentagarriak ziren, pasionalagoak eta tuntunagoak».

Testuinguru horretan, alargunen kasua kontu handiz zaindu beharrekoa begitanzten zen. «Alargunak ez zeudenez gizon baten mende, arriskutsuak ziren. Are gehiago, esperientzia sexuala zeukaten, ezkonduak egon zirelako. Gainera, garai horretan askotan esaten zen alargunak histerikoak zirela, histeria gaixotasuna zutela. Sexu harremanak izan zituztenez eta ugaltze hazi hori beren barruan zutenez eta ezin ziotenez irteerarik eman, pilaketa horregatik erotu egiten zirela eta histeriko bihurtzen zirela esaten zen. Horregatik gehiago kontrolatu behar ziren alargunak».

Alargunen gaineko kontrola are bortitzagoa izaten zen beren baitan biltzen zituztelako garaian arriskutsu jotzen ziren egoera asko: askatasuna bate-tik, gizon gabe egotearen askatasuna; esperientzia sexuala, bestetik; eta, askotan, ondarea kudeatzeko gaitasuna. «Hiru elementu horien ondorioz alargunak arriskutsuak ziren sistemarentzat eta oso irudi ezkorra zabaltzen zen alargunen inguruan».

#### GOGOR ZIGORTUAK

Aipatu bezala, alargunei XVI. eta XVII. mendean inposatzen zitzaizkien ideala oso zorrotza zen. Alargunaren idealaren bitartez emakume horien bizitza kontrolatu nahi zen eta baldintza zurrun horietatik apartatzen zena gogor zigortzen zuten. «Hor ditugu alargun prostituten kasuak, alkaguetak, sorginak... oso gogor zigortzen zituen sistemak».

Sorginak bai, maiz alargunak sorginkeriarekin lotzen zituztelako eta Nausiaren ustez, «ez da kasualitatea». «Ez da kasualitatea sorgin-ehiza XVI. eta XVII. mendeetan kokatzea, Es-



tatu Modernoa sortzen ari zenean. Eta ez da kasualitatea salatu artean %70-90 bitartean emakumezkoak izatea; horien artean asko, alargunak».

Alarguna baldin bazen emakumeen artean figurarik arriskutsuena, historialariaren ustez ulergarria da bere gainean zegoen kontrol hori bortitza izatea. «Emakume horrek ez zuenean bat egiten alarguntasunaren idealarekin, sistemak bere kontra jotzen zuen. Hori egiteko modu bat sorginkeria salaketen bidez beren kontra egitea zen».

#### ALARGUNAK GIZONEN GREMIOETAN

Alargunek bazuten beste berezitasun bat; familia burua beraiek ziren eta ondasunen eta lan eremuaren inguruko erabakiak hartzen zituzten. «Emakume guztiek lan egin behar zuten eta lan egiten zuten. Iturri ofizialek askotan ez digute hitz egiten emakumeen lanbideei buruz, askotan azpi-

Erriberan 1638. urtean jasotako irudia. Egileak jarritako izenburuaren arabera, «atso lukurra». Garai hartan gogor zigortzen ziren sistemak inposatutako eredutik aldentzen ziren emakumeak. GAUR8

tik geratzen ziren lanak zirelako. Alargunen kasuan, familia burua beraiek ziren eta beste emakumeek egin ezin zituzten lan asko beraiek egin ahal izan zituzten. Medikuntzan asko topatzen ditugu; emaginak, zaintza munduan zebiltzan asko –horietako asko sorginkeriatik salatuak izan zirenak... Eta beste alargun asko gremioen kontra borrokatzen aritu ziren».

XVI. mendean emakumeak eremu publikotik, lan eremutik, kanporatuak izan ziren, sistemak zaintza lanetan gertatzea eta amatasuna bultzatzea eskatzen zuelako. «Emakumei debekatu egin zitzaizkien gremiodun izatea. Salbuespena alargunen kasuan zegoen. Beraiei baimentzen zitzaizkien urtebetez beren tailerra edo denda irekita izatea, luto urte horren barruan. Horrekin irtenbide bat eman nahi zitzaizkien, baliabideak, urte horren barruan produktu horiek saldu eta horrekin diru bat izan zezaten aurrera egiteko. Behin urte hori pasata, esaten zitzaizkien beste gremiodun ofizial bat kontratatu behar zutela, edo denda itxi, edo semen bat bazuten ikasten, gremiodun ofizial izandakoan, hari pasa negozioa».

Nafarroako artxiboan XVI. eta XVII. mendeetako 200 bat prozesu judizial daude alargunekin eta gremioekin lotuta. Horietan alargunek gremioen kontra borrokatzen dute. «Alargun horiek esaten dute beraiek ere badutela eskubidea denda edo tailerra irekita mantentzeko, gremiodun direla beraiek ere eskubide osoz, beren produktuak besteen kalitate berekoak edo hobekak direla. Finean, beraiek ere ezagutzen dutela negozioa diote eta beren lekua aldarrikatzen dute

gizartean. Auzi horietan beste alargun batzuk ere aipatzen dira, beren eskubideen alde aritu direnak eta negozio horien gidaritza izan dutenak urte askoan. Horiek eredu modura jartzen dira auzi horietan. Eta hor ikusten da badagoela erresistentzia bat gremioen kontra, borrokatzeko grina», esan du Nausiak.


#### ATZERA BEGIRATU, GAURKOA ULERTU

Duela lauzpabost mendeko alargunen historia irakurrita, nahiko modu mingarrian ulertzen dira egungo egoera asko. «Patriarkatuak bere sorreratik egiten duena da –eta alargunen kasuan argi ikusten da– sistema hierarkizatu hori, emakumeak mende hartzen dituen, justifikatzeko hainbat diskurtso eraiki; ez bakarrik gizonezkoei begira, baita eta batez ere emakumezkoei begira ere. Gu hainbeste mendez gizonen menpe egon bagara, diskurtsoa sinistu egin dugulako izan da. Noski, emakumeen gaineko kontrol eta jazarpen sistema bortitza egon da, baina, bestetik, diskurtso bat egon da eta guk sinistu egin dugu. Alargunen kasuan modu gordinean ikusten da diskurtso horrek nola funtzionatzen duen, emakume hauek kontrolatzeko eta zigortzeko. Eta, aldi berean, beraiek diskurtso hori sinisteko eta jarraitzeko. Baina, liburuaren izenburuan esaten dudanez, erresistentzia historia bat ere bada. Hor itxaropen izpi bat. Emakume askok eutsi eta aurre egiten zioten diskurtso horri. Askok beharregatik eta beste batzuek, beren izaeragatik. Baina niretzat emakume hauena eredugarria da guretzat. Haiek eutsi egin zioten eta guk ere eutsi egingo diogu», bukatu du historialariak.



Unai  
GAZTELUMENDI

# iRRITZIA:





# GURE HOTSAK, BIZI-BIZI

## Euskal herri musikako instrumentuen entziklopedia hasi du Juan Mari Beltranek

**N**ostalgia irerik ireki gabe, Euskal Herriko musiken aberastasuna jaso eta ezagutaraztea da Soinuenea Fundazioak hasi duen entziklopediaren helburua. Herri musika bizia eta aldakorra dela ulertzen dute Juan Mari Beltran Argiñena eta bere lantaldeak, eta proiektu anbiziotsu hau sormenaren pizgarri izatea nahi dute.

XX. mendean landa lanean ezagutu dituzten musikari eta ikerlarien testigantzak bildu eta askotariko dokumentazioarekin osatu dituzte, gaurko eta biharko musikariei oinarri bat eskaintzeko gogoz.

Historia hau kontatzeko musika tresnez baliatu dira, objektu soilak baino aunitzez gehiago direla jakitun. Hotsarekin jostatzeko sortutako lanabesak dira; oinarri materiala izan arren, materiagabetzat dugun musika egiten dute. Sinbolo ere badira eta testuinguruaren arabera ospe eta erranahi desberdina izan dute eta eman diete joleei. Objektuon bidez kultura eta jendartea entzun daitezke, hortaz.

“Soinu-tresnak euskal herri-musikan” entziklopedia Oartzunen bizi den etxarriarraren urte luzetako ahaleginaren eta harekin aritu diren kideen fruitua da. Iñaki Eguren, Orkatz Arbelaitz, Itziar Navarro, Aitor Larrañaga eta Aingeru Berguices aipa daitezke lantalde horretan, baina jende gehiago sartuko da aurrerago.

Entziklopediak argitalpen fisikoa izanen du, eta baita online bertsioa ere, Soinuenearen webgunean.

**KULTURA /** Maider Iantzi Goienetxe

Euskal Herriko musika tresnei buruzko entziklopedia osatzen hasi da Juan Mari Beltran Argiñena, hainbat kidek lagunduta. Bizirik iritsi zaiguna ulertzea eta alderdirik baliagarrienak hartzea da asmoa, herri kulturaren eta sormenaren ongarri izan daitezen. Kontzertu batean ezagutaraziko dituzte, gaur zortzi, Donostian.

Lehendabiziko liburukia, flautei eskainia, kalean da jada, hotsak aditzeko diskoarekin batera. Interneteko bertsioan ikus-entzunezkoak jarriko dituzte. Eta, lehen aipatu dugun herri musika zerbait bizia bezala ulertzeko modua-

ri fidel, kontzertu berezi batean aurkeztuko dute lana.

Luxuzko lagunak izanen ditu musikari, ikertzaile eta irakasleak gaur zortzi, Donostiako Victoria Eugenia Club aretoan estreinatuko duen zuzeneko emanaldian: Errege

Ander Barrenetxea eta Juan Mari Beltran, xiolarrua eta flauta jotzen, Oartzunen dagoen Soinuenea musean. Herri musikaren txoko honetan ia 2.000 instrumentu daude jasota, Euskal Herrikoak zein mundu zabalekoak.  
Andoni CANELLADA | FOKU

Belda (akordeoia), Ander Barrenetxea (ahotsa, atabala, danborra, panderoa eta perkusioak) eta Aitor Gabilondo (ahotsa, gitarra). Beltranek txistua eta danbolina, xirula eta ttunttuna, flautak eta txilibituak joko ditu. “Txulubite malabite” izeneko kontzertu honetan aerofono hauen bereizgarriak ezagutzeko aukera izanen da. Interesa duenak Donostia Kulturaren webgunean eskura ditzake sarrerak.

### SOINUENEAN

Soinuenea-Herri Musikaren Txokoan egin dugu hitzordua Beltranekin. Bertan, Oartzun-



go Ergoiengo paraje lasaietan, uztartzen ditu bizilekua eta lanlekua. 1965etik landa lanean dabil ikerlaria, Euskal Herriko bazterretako soinuak ezagutzen, eta harreman estua, kasik etxekoa egin du musikari aunitzekin. Bilketa horren uzta dago Soinuenean: ia 2.000 musika tresnaren bilduma, gurean erabilitakoak zein mundu zabaletik ekarriak, fonoteka, irudi artxiboa eta liburutegia, herri musiken erreferentzia gune bihurtua.

Goiz sentitu zuen Beltranek musikarako grina. «Donostian jaio nintzen, baina gero Etxarri Aranatzan bizi izan nintzen 15 urte egin arte eta han hasi nintzen, 7 urterekin, txistua eta klarinetea ikasten. 11 urterako jada musika bandan eta txistu taldean jotzen nuen», oroitu du. 15 urterekin, Donostian, aitaren eskutik Goizaldi dantza taldean hasi zen eta Isidro Ansorenarekin jarraitu zuen txistua ikasten. Argia dantza taldean zela Urbeltz batu zitzairen, Jorge Oteiza ere sarri joaten zen entsegu eta emanaldietara, eta haiekin bertze modu batera ikusten hasi zen herri musika.

«Orduan hasi ginen Maurizio Elizalde entzun eta emozionatzen, lehengo txalapartariak adituz berdin... Haiengana jo, haiekin ikasi, hori jendarean zabaltzen hasi, eta gero eta gehiago engantxatu ginen guretzat berriak ziren forma aberats horietara».

Batera ibili zen Mauriziorik eta Donostiako Kontserbatorioan zeharkako flauta ikasten. Hernaniko Musika Eskolan ia 50 urtez aritu da irakasle eta oraindik ere landa lanean jarraitzen du. «Material horrekin errepertorioa aberastu, jotzeko modua ere bai, es-

koletan zabaldu... Dena bat da: ikertzen aritzea, jotzea eta erakustea; diziplina horiek guztiek elkar elikatzen dute».

Musika tresnen entziklopedia ere hor sartzen da. Bost liburuki proposatuko dituzte, CD banarekin. Lehen lan sakona Aita Donostiak egin zuen 1952an, eta 1996an «Soinutresnak euskal herri musikan» monografikoa argitaratu zuen Soinuenean. Handik CD-Rom interaktibo bat sortu zuten, musika tresnez irakurri, haiek entzun eta musikariak jotzen ikusteko aukera ematen zena. Orain, hori bera egin nahi dute, baina sakonago.

Musika tresnak hotsa sortzeko sistemaren arabera multzokatu dituzte. Hotsa sortzeko bibratzen duen materiala zein den kontuan harturik, honako taldeak bereizten dira: idiofonoak (tresnaren gorputza da bibratzen duena), membranofonoak (mintza), kordofonoak (haria) eta aerofonoak (airea). Flautei buruzko lehen liburu kiaren ondotik, bestelako aerofonoak biltzen dituen bigarren liburukia aterako dute aurretik. Urtez urte ale bat ateratzen ahaleginduko dira: membranofonoak, idiofonoak eta kordofonoak.

#### ZABALDUENA, TXISTUA

Euskal herri musikan gehien zabaldutako musika tresna txistua da segur aski. Gaur egun ere ia gure lurralde eta eskualde guztietan daude txistulariak, Zuberoan salbu, han xirulariak baitira. Xirula, txistua bezala, esku bateko ahokodun flauta zuzena da, hiru zuloak. Baina txistua baino laburragoa da eta doinu altuagoa ematen du. Horren ondorioz, berezitasun eta bizitasun handia du.



## ZUZENEAN, «TXULUBITE MALABITE» KONTZERTUAN

«Soinu-tresnak euskal herri-musikan» entziklopediaren lehendabiziko alearekin batera datorren CDan oinarrituta, kontzertu bat prestatu dute Juan Mari Beltran, Errege Belda, Ander Barrenetxea eta Aitor Gabilondok. «Txulubitek entzungo dira, lizar makilekin egindakoak, nola azala ateratzeko kantatzen zen. Gero urruti-urruti joango gara denboran eta Izturitzeko kobazuloan agertutako flauta baten kopia bat hartuko dugu, putrearen hego hezurrekin egindakoa. Kanaberaz egindako txilibituak joko ditugu. Xirula eta ttuntuna, zikiratzaileen txilibituak, Zuberoan 'kerestuen xirula' esaten zaienak. Okarinak ere bai», kontatu du Beltranek pasioz, entseatzeko lagunen zain dela.

«Gure ikonografian asko agertzen da organo eramangarria: Gasteizen, Iruñean, Baionan... Hori ere joko dugu. Bukatzeko, gure nagusia hartuko dugu, txistua, eta geografian bidaiatuko dugu, ez baita berdin entzuten Alejandro Aldekoa Berrizkoa edo Maurizio Elizalde Arizkungoa». Pieza berri batekin borobilduko dute saioa.

Ez da informazio bera, adibidez, txistuari buruzkoa eta zikiratzaileen txilibituari buruzkoa, erabilera eta historia desberdinak direlako. «Zikiratzaileen txilibituaren inguruko material gehiena Euskal Herrikan kanpo aurkitu dugu, XIX. mendean eraman zituztelako AEBetara, Londresera, Parisera, Berlinera...». Gustura ibiltzen da instrumentuak biltzen, «abenturan». Maiz bidaia aprobetxatzen du biltzeko. Bertze batzuetan, ikerketa baliatzen du bidaiatzeko.

#### EZAGUTU, BALORATU, BIZI

«Jendeak ezagutu behar du herrikan nolako musikak eta soinu-tresnak izan diren. Ezagutzuz gero agian baloratuko ditu



**Zikiratzaileek txilibitua jotzen zuten herrira iristean, eta hala jakiten zuten herritarrek etorriak zirela. Bide batez, musika eskaintzen zuten. Bizitzaren osagarri eta lagungarri ziren**

**«Beraiek hala egin zuten eta guk berdin egin behar dugu? Ez. Guk ikasi, ezagutu eta gurea egingo dugu», defendatu du Oiartzunen bizi den musikari, ikerlari eta irakasleak**

eta baloratzen baditu agian bizi emango diegu denon artean. Segi dezatela bizitzen, bizi behar badute; hori gure esku dago», aldarrikatu du.

Soinuenea museoa ere horren bertze atal bat da. «Eskoletatik etortzen dira, buelta egiten dute eta ederra da nola hartzen duten ikustea, soinu-tresnak fisikoki ikustea, hotzak eta musika entzutea... Kontua guk ondo pasa eta hori transmititzea da. Garrantzitsua da jakitea zer gertatzen zen, nola girotzen zen gure herria eta jarduera. Bizitza musikarekin izaten zen».

Zikiratzaileek txilibitua jotzen zuten herrira iristean, eta hala jakiten zuten herritarrek etorriak zirela. Bide batez, mu-

sika eskaintzen zuten. Oiartzungo Ergoien auzoan, Sarobe baserrikoak ote jotzen hasiten zirenean ere musika entzuten zen. «Hau guztia ezagutzean nik haluzinatu nuen eta beste batzuk ere engantxatu dira. Gazte batzuk ere hala aritzen dira: *tukututun, tukututun...* txalaparta bat balitz bezala. Bizitzaren lagungarri eta osagarri dira soinu horiek. Beraiek hala egin zuten eta guk berdin egin behar dugu? Ez. Guk ikasi, ezagutu eta gurea egingo dugu. Berritzaileak izan dira Leon, Maurizio... Aurretik eginga jaso eta euren eskaini dute, bizi-bizi, fresko. Ezin da garbi-garbi mantendu, ukitu gabe, hil egingo litzateke», egin du gogoeta.

Lerroon gainean, Ander Barrenetxea, Errege Belda, Aitor Gabilondo eta Beltran bera heldu den larunbateko kontzerturako entseatzan. Aitzineko orrialdean, XX. mende hasieran Oiartzunen haurrek jolasteko kanaberaz eta banbuz egiten ziren txulubitak. Eskuinean, Itziar taldea, 1920an, Patxi Agerre eta Juana Maria Beristain Erremitterikoak osatua. Behean, Sorladako elizako aingeru flauta-jotzailea. Andoni CANELLADA | FOKU - «SOINU-TRESNAK EUSKAL HERRI MUSIKAN» ENTZIKLOPEDIA





**Ana Elozegi Serna**  
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

## Anita Parker

**O**rain dela 25 urte ezagutu genuen elkar Azpeitiko gaztetxearen bueltan. Baina gure arteko harremana –hartu eta emana– Hernanin kozinatu zen. Ni lanean hasi berria nintzen Donostian eta Hernanin bizitzen nengoela izan nuen zu ezagutzeko aukera. Kuadrilla polita geneukan kontuak esateko, afari eta gaubeila ederrak, sagardotegi eta bertso saioak. Zuk esaten zenuen moduan ilustratu asko gure artean! Astean behin, astero-astero, gelditzen ginen elkarrekin bazkaltzeko, kontuak esateko, zuk esaten zenuen moduan, «*neskazarkeien ingo al dinau pixket?*»; han eta hemengo berri jakitea gustuko zenuen. Bazkariak terapia bihurtzen ziren, batzuetan nire alde, hurrena zure alde. Gogoratzen naiz hasieran zurekin flipatu egin nuela, askotan entzun eta ez nuen ondo ulertzen; zer ari da hau esaten, zer hausnarketa dira horiek... beti mugan. Beti tentatzen, arrapaladan pentsatzen zenuena esaten, beste asko ausartzen ez ginena idazten!

Anita Parker deitzen ninduzun: «Anita Parker, zer moduz?». Badakizu zu hil eta gero begiratzen egon naizela zein ote den Anita Parker? Zergatik deitzen zenidan horrela! Urte ederrak izan ziren, parranda, barre eta denetarako denbora izaten genuen. Zenbat bazileo zure hiztegien inguruan, «*nun hijue orain Ogro, H edo I? Hi bizi haiz hi, 10 urte hiztegi bat sortzeko...*».

**Apirilaren 15ean hil zinen, eta badi-rudi jende asko gelditu dela zuri gauza asko esan nahian, ordutik artikulu ugari atera dira-eta zu agurtuz.** Egia esan zaila da zu ahaztea, arrastoa uzten duen pertsona horietakoa zara, bizia, sentibera, azkarra!

Denbora askoz urrutiratuta egon gara, ni nirean eta zu zurean. Tarteka topo egin, barre batzuk bota zure burutazioak entzunda eta, agurrerako orduan, «Anita, kafe luze bat hartu behar dugu...».

Konfinamendu garaian edo ondoren, ez naiz oso ondo gogoratzen noiz, zuen irrati saioak entzuten hasi nintzen; asko gustatzen zitzaidan zure okurrentziak entzutea, interesgarriak, eroak zirelako...

Egun batean deitu eta, «Anita, zurekin akordatu naiz, psikologo bat behar dugu dolua lantzeko irratian, animatzen al zara?». Segituan baietz erantzun nizun. Luze egon ginen hitz egiten, kide batek igual bide berria egingo zuela, lur jota egonda, nola landu hori, ez zuela egingo... eta saio bat egin nahi zenuela heriotzaren eta doluaren inguruan. Saio hori prestazera gerturatu eta azkenean zure ki-

dea ez zen joan eta irrati saioek aurrera egin zuten!

Hementxe GAUR8n idatzitako zerbaiten harira egon ginen beste behin, eta orain dela denbora bat zuk pasatutako depresio sakon horren pasarteak kontatu zenidan. Barruak hustu eta orduan igarotako zerbait bezala kontatzen zenuen, bazenekiela zer zen infernu horretan egotea. Eskertu nizun kontatzea eta elkar trukatzea. Besarkada handi batekin agurtu ginen!

**Faltan botako zaitugu, zure burutazioak, jardunak, neskazarkeriak, zu zeu, zure pertsonaia, zure ekarpenak!** Ez nintzen joan azken agurrera, kanpoan nengoelako edo barruak astindu zitzaizkidalako, ez dakit, agian biak... baina beharra sentitu dut zuri idazteko, agian irakurriko duzulakoa. Agur Ogrue, bidaiaria on!! •



Iñaki Seguroalaren omenezko agur ekitaldia, Azpeitian. | Jon URBE | FOKU

{ koaderno } Iker Barandiaran

# Zertarako idatzi?

Aurreko astean herriko liburutegitik, Liburuaren Egunaren harira, "HitzArteak Km 0" izenpean antolatutako saioan parte hartzera gonbidatu gintuzten bost lagun. Guk nahi genituen testuak irakurtzea zen eskatutakoa, eta epe labur horretan Jokin Mitxelena artistak gure irakurgetatik inspiratutako ilustrazio bana egin behar izan zuen zuzenean. Txukuna izan zen, aberasgarria, eta bertaratutako jende multzo politak esandakoaren arabera pozik geratu ziren haiek ere.

Bostok arrasatearrak gara, baina profilak, adinak, bizipenak... eta, ondorioz, eramandako irakurgetatik, askotarikoak. Maria Osés gazteena, esaterako, poesia eta bestelako sorkuntza lanak plazaratzen aritzen da. Egun horretan beste sortzaile batzuen idatzietan oinarritutako pieza irudimentsu eta iradokitzailea ekarri zigun, (ez)poesia eta hausnarketa sakona batuta.

Ikasketez eta iraganean ogibidez kazetari izandako Marian Porcellek bere azken eleberria den "Nevermore"-eko pasarte batzuk eskaini zizkigun, non gazte idealista batzuek egunerokoa nola bizi duten azaltzen duen aldaketa klimatiakoaren kontrako borroka ardatz dutela.

Arantza Otaduy historiariak, Irene Tristan *alter ego*-aren kapa jantzita, emakumeen jazarpena, literatura eta historia batuzituen eskuko telefonotik irakurri baina entzuleok mendeak atzera bidaiaraziz eta harrapatuz.

Eneko Barberenak Mondragoeko historia hurbilari keinu ugari egin zizkion errelato berri honen protagonista diren artaziek moztuko ez duten hari bati jarraitzea eman eta denok lotuta edukita.

Neuk, aldiz, orriotan argitaratutako bi iritzi artikulu zabaldutuen, ondo azpimarratuz astero-astero halako oparia eskaintzen dugun eta oraindik ezezagun samarra den hedabide txiki honetarako idatziak izan zirela, merezitako propaganda egiteko nire aletxoak jarri. Bata ditxosozko pandemiaren lehen egunetan idatzitakoa, dena izoztu d/zuen beldurrari buruz, eta

beldurrak eremu askotan –gehienetan– duen botereaz. Eta, bestea, lagunei buruzkoa, usadio eta inertziatik at, laguntasun horren kalitateak duen garrantziaz. Ez nituen irakurraildirako propio sortu, pandemia desberdinetan idatzitakoak dira: bata, hortik aurrera ezer berdina izango ez dela egiaztatu genuen egunekoak: beldurra, kontrola, globalizazio gordina... Eta, bestea, norberaren bizitzako mugari batekoa, non atzera zein aurrera begiratu eta balioa ematen diogun benetan funtsezkoa denari.

Ariketa polita izan zen agertokira igo ginenontzat: proposamenaren ezohikotasun eta askatasunagatik, elkartu ginenengatik –nahiz eta dezente desberdinak izan edo agian horregatik– eta antolatzaileek, ohi duten bezala, jarri zuten mimoagatik. Errepikatuko dugun? Aurreikusitako testuen edo denboraren iraupea laburragoa izateak lagunduko luke, jakina! Ja-ja.

Denok gustura gelditu ginela esango nuke, baina deigarria da gonbidatuak izan ginenok idazle moduan

Zer da, bada, idazle zarela aitortzea? Idazle izatea bera baino, gure buruari galdetu behar genioke zergatik eta zertarako idazten dugun; hori da benetan garrantzitsua...

aurkeztu bagintuzten ere, bostok mikrofono aurrean azaldu genuela gure burua ez dugula idazletzat.

Zer da, bada, idazle zarela aitortzea? Han batutako bostok argitaratu izan dugu libururik, baina guretzat ez da hori halako deitura izateko nahikoa. Agian literaturan jantzita egotean eta liburuak idaztea ogibidez izatean jartzen dugu muina? Edo norbaiten oniritzia behar dugu akaso?

Idazle izatea bera baino, gure buruari galdetu behar genioke zergatik eta zertarako idazten dugun; hori da benetan garrantzitsua. Eta nik idazten dut barrukoa askatzeko eta besteen barrenak (pentsaerak, emozioak...) mugitzeko. •

**P**asa den apirilaren 25ean ekonomian espezializatutako euskarazko komunikabide digital berria bat sortu zen: Enpresa Bidea. Egoitza nagusia Donostian duen proiektuak Maite Reizabal kazetaria du erredaktoreburu, eta Pilar Kartzada kazetaria eta Niko Cuencana ekonomialaria ere proiektuaren parte dira.

Lehen asteotan, Enpresa Bidearen bultzatzaileek egitasmoaren egitura indartuko du-

ten aliantzak sortzeko lanean jarraitzen dute, «Euskal Herrian eta Euskal Herrirako» heldabide bat izatea asmoarekin. Donostiako erredakzio nagusiaz gain, Enpresa Bideak Bilbon ere badu ordezkartza bat, eta Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko informazioaz arduraturiko diren kolaboratzaileak ere baditu.

Oraingoz, Enpresa Bidearen taldea Reizabalek, Kaltzadak eta Cuencak osatzen dute, baita laster egitasmoarekin bat egingo duten beste bi langilek ere. Taldea laguntzaile batzuek

ere osatzen dute, besteak beste, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako korrespontsalerik. GAUR8ri eskainitako elkarrizketan, Cuencak azaldu du datozen hilabeteetan kolaboratzaileen eta adituen sarea osatuko dutela, eta enpresen eta unibertsitateen laguntza ere bildu nahi dutela.

Hala ere, fakultateetan arazo bat aurkitu dute: zaila da ekonomian espezializatutako kazetariak aurkitzea. «Oso zaila egin zaigu ekonomia gustuko duten eta ekonomia ulertzen duten kazetariak topatzea»,

*«Guk beste erreportaje mota bat sortu nahi dugu, sakonagoa. Jendeari kontatu nahi diogu zer gertatu den, eta, bereziki, zergatik gertatu den»*

azaldu du Cuencak. Hori dela eta, Enpresa Bidearen koordinatzaileak uste du aukera onena «zuzenean ekonomia fakultateetara joatea» izan daitekeela, «errazagoa baita ekonomia ikasten duen bati kazetaritza zer den erakustea kontrakoa baino». Ildo horretan, adierazi du berak koordinatzailea bezala egunkariaren ildoak markatzen dituela, baina kazetaria izan behar dela idazteko lana egiten duena.

Iritzi arloko kolaboratzaileen artean kazetariak ditu egitasmoak, baina baita aboka-



# «Enpresa Bidea ez da jendeak buruan daukan ekonomiari buruzko sepia koloreko panfleto horietako bat, guk modu dibulgatzailean zabaldu nahi ditugu berriak»

tuak, hirigileak, irakasleak edo klima aldaketan adituak ere, askotariko gaitan sakontzeko lagungarriak izango direnak. «Jakinduria mota ugari bilduko ditu Enpresa Bideak. Oreka hori beharrezkoa da, eta horri esker landu ditzakegu gaiak sakonki», nabarmendu du Cuencak.

## Ekonomia «sakonean»

Enpresa Bideak gaiak sakon eta, batez ere, irakurlearentzat modu ulergarrian, landu nahi ditu: «Guk ez dugu berri ekonomikoak biltzea bakarrik planteatzen, gure eredu albiste propioak sortzea da. Hau da, 'Iberdrolak bere emaitzak eza gutzera eman ditu' motako albiste bat edonork eman dezake. Guk, aldiz, beste erreportaje mota bat sortu nahi dugu, sakonagoa. Jendeari kontatu nahi diogu zer gertatu den, eta, bereziki, zergatik gertatu den», azpimarratu du Cuencak Enpresa Bidearen edukiei buruz.

Horregatik, komunikabidearen webgunean garrantzi handiena duten edukiak berezko informazioak dira, dibulgazio lanari dagozkionak. Horrelako piezak "Sakonean" atalean kokatzen dituzte. "Ekonomia", "Finantzak" eta "Enpresak gaur" sailez gain, Enpresa Bideak "Ekinez" ekintzailtzari buruzko atala ere eskaintzen du, eta laster euskaraz egiten diren ekimenetarako atal berezi bat ere izango du. "Lan eta bizi" atalean, ekonomiarekin lotuta dauden liburu eta filmak aztertzen dira. Ildo horretan, Cuencak nabarmendu duenez, «Enpresa Bidea ez da jendeak buruan daukan ekonomiari buruzko sepia koloreko panfleto horietako bat, guk modu dibulgatzailean zabaldu nahi ditugu berriak».

Ikuspegi hori azaltzeko, ekonomialariak adibide argigarri bat eman du: «Ekonomia dena da. Erosten dugun modua bera ere ekonomia da: ez da gauza bera Amazonen erostea eta zergak ez dakit non ordaintzea, edo tokiko dendetan erostea. Gure poltsikoari eragiten dion oro da ekonomia, ez bakarrik burtsak gora egiten duen edo Europako Banku Zentralak interesak igo dituen edo ez. Gure egunerokotasunean zuzenean eragiten digu ekonomiak eta hori guztia kontatu nahi dugu».

Horretarako, egunero gai bat landuko dute, bai "Sakonean" atalean, bai beste atal batzuetan. Cuencak uste du proiektua finkatuta dagoenean bizpahiru gai argitaratu ahal izango dituztela egunero hainbat adituren eskutik, batzuetan sakonago eta besteetan arinago. Komunikabideari nortasuna eman nahi diote horrela. Jorrotutako lehen gaia, Cuencak berak landutakoa, tamalez oso ezagunak zaizkigun krisiei buruzkoa da. Artikuluei buruz, hori bai, ideia bat argi utzi du Cuencak: «Kantitatea baino, kalitateari eman nahi diogu garrantzia». Gero eta zabalduago dagoen *click-bait* fenomenoaren aurrean, Enpresa Bidearen bul-tzatzaileek nahiago dute «guzak sakon landu eta irakurleari benetako ekarpena egitea». Azken finean, «enpresa ideia hau ez dugu sortu teletipo bat hartu eta euskaratzeko».

## ARRAKALA HISTORIKOA

Hori guztia premisa negoziatzeko batean oinarrituta: euskaraz informatzea. Horixe da Enpresa Bidearen bereizgarria. Egitasmoaren sortzaileak konturatu ziren bazela euskararen eta ekonomiaren arteko «arra-

kala historiko» bat. Izan ere, nahiz eta euskarazko tokiko komunikabide indartsuak egon badauden, Cuencak uste du arrakasta hori ez dela iritsi informazio ekonomikoaren mundura: «Ikusten genuen arrakala hori zegoela eta zerbait egin behar zela». Aurrekari batzuk izan arren, Enpresa Bidea euskarazko informazio ekonomikoaren aitzindarietakoa da. Cuencak gogoratu du badela "Ekonomiaren Kazeta" egunkaria eta ekonomia atal indartsuak dituztela GARAK edo "Berria"-k, baina uste du aitzindaria dela gaiak sakon aztertzeke egin duten apustua.

Euskarazko informazioa jasotzerakoan, Cuencak uste du badela «alferkeria puntu bat», eta horrek eragiten duela jendeak artikuluak beste hizkuntza batzuetan irakurtzea nahiago izatea euskaraz baino. Gainera, ekonomialariaren arabera, beste arazo bat ere badago: ez da hizkuntza tekniko ulergarria asmatu, eta horrek, batzuetan, terminologia espezializatuegia erabiltzea behartzen du. «Oreka bilatu behar dugu, hau da, zorroztasun puntua galdu gabe, irakurleak erraz ulertzeko moduan idatzi behar dugu. Horrek markatu behar du Enpresa Bidearen helburua, eta ez da erraza. Hori bai, jendea guregana hurbiltzea nahi dugu eta kontuan izan behar dugu erabiltzen dugun hizkeraren arabera irakurleak hurbildu baino urrundu egin dezakegula».

Enpresa Bidean enpresaren beste printzipioak Cuencak aitzirengandik txikitatik ikasi zuen horretan oinarritzen dira. "Aititeri ikasitakoak" artikuluan azaltzen duen bezala, Cuencarentzat ekonomia «balioetan oinarritu behar da». Izan ere, aititak esaten zien

## NIKO CUENCA

## EKONOMIALARIA

Ekonomialaria eta analista, Niko Cuencak Beristain proiektu berri batean murgildu da: Enpresa Bidea. Hedabide digital berriak erreferente bihurtu nahi du informazio ekonomikoaren arloan, eta euskaraz egingo du.

Marcel Pena



Jon URBE | FOKU

«Aititak esaten zigun kasu askotan 'SA' letrek 'Sociedad Anonima' beharrean 'Sociedad sin Alma' esan nahi zutela, eta horrek izugarri markatu ninduen»



«kasu askotan 'SA' letrek 'Sociedad Anonima' beharrean 'Sociedad sin Alma' esan nahi zutela, eta horrek izugarri markatu ninduen», aitortu du Cuencak. «Krisi honek erakutsi digu hain zoragarria zen globalizazio miresgarria hutsik zela. Engranajea gelditu da eta, ipuinean bezala, konturatu gara enperadorea biluzik zela», aipatu du Cuencak. Horregatik, Enpresa Bideak apustu egiten du «jendeari tresnak emateko, eta gero bakoitzak erabaki dezala». Ildo horretan, Cuencak salatu duenez, «ekonomia besteen esku utzi dugu, ondo bizi garenez, gure izenean erabakitzen dute. Botere hori berreskuratu behar dugu, eguneroko erabakiak, hala nola non erosi edo zer kontsumitu, ekonomia baitira».

Cuencak azaldu du Euskal Herriak berezko ekosistema ekonomikoa duela, ekonomia sozialak eta kooperatibismoak markatutakoa. Horretan ere eragina izan nahi du Enpresa Bideak «tokiko enpresen eta enpresa txikien ikuspuntutik», komunikabide nagusietatik ez baita arlo hori jorratzen, eta beraiek toki bat eman nahi baitiete.

#### BI KRISIREN ARTEAN

Enpresa Bidea bi krisi ekonomikorik guztiz baldintzatutako testuinguruan sortu da: covid-19aren pandemiak eragindakoa eta Ukrainan piztutako gerra. «Enpresa Bidea abagune honetan sortu da eta nahi dugu, gure indarrekin eta gure baliabideekin, gertatzen ari dena ulertzen lagundu. Berez, oso helburu potentea da», azaldu du.

Ekonomialariak gogoratu duenez, «2008ko krisiak jendeari begiak zabaldu zizkion. Krisiak kapitalismoa zer den, globalizazio zer den erakutsi zigun. Oraingo krisi honek, berriz, erakutsi digu mende-kotasun energetikoa zer den». Cuencaren arabera, «trantsizio batean gaude: trantsizio ekologikoa, trantsizio digitala, ekonomia zirkularra... Horrek guztiak adierazten digu gauza asko aldatu daitezkeela».

Egoera horren aurrean, Cuencak alternatibak bilatzea proposatzen du, batez ere energia arloan. «Gero eta korapilatsuagoa eta garestiagoa da petrolioaren lortzea. Fracking bidez atera behar da orain, baina ekonomikoki oso garestia da eta gainera eragin ekologiko handia dauka. Gizartea

ohartzaren ari da orain arte izan dugun bizitza erritmo hori agian ez dela erreal, baita beste gauza batzuen kontura mantendu dugula ere, adibidez ingurumena. Zer konponbide dauka horrek? Gure burua aldatzea eta gure kontsumitzeko eta produzitzeko energia sistema aldatzea. Agian planteatu behar da zergatik ez dugun energia fotovoltaikoa gehiago lantzen. Trantsizio horretan erantzule ere bagarela».

Hain zuzen ere, egungo egoeran Cuencak antzekotasun handiak ikusten ditu Euskal Herrian ondorio larriak izan zituen 1973ko krisi ekonomikoarekin. «Biak hasi ziren petrolioaren prezioarekin eta biak sortu ziren gerra baten ondorioz». Zehazki, Yom Kippur Gerra: herrialde arabia-

rrek petrolioaren prezioa igo zieten Mendebaldeko herrialdeei, AEBek Israeli laguntza eman ziotelako Egiptoren eta Siriaren erasoaren aurrean.

Orduan, krisi ekonomikoak erantzunezko mugimendu kultural baten sorrera ekarri zuen. «80ko hamarkadan ondorio sozial itzelak egon ziren: gizarte aldaketak egon ziren, pobrezia igo zen, droga sartu... Kulturalki oso une aberatsa izan zen, eta Euskal Rock Erradikala edo zinema eszena berri bat sortu ziren. Beraz, badira antzekotasunak, baina baita desberdintasunak ere», argitu du Cuencak. Eta, orduan ez bezala, 2022an Enpresa Bidea euskarazko egunkaria daukagu Ukrainan, Europan eta Euskal Herrian gertatzen ari den guztia azaltzeko.



**GAUR8**



*ireki gure leihoa*

## Festa paganoak berreskuratzen

**E**uskal Herriko ohitura zaharrak (batzuk) berreskuratzearen aldekoa naiz eta zehazki jaien tesuinguruaz edo ospakizunez ari naiz. Arrazoi ezberdinak ditut honetarako, baina batez ere elizak ospatzen dituen ospakizun asko eta asko ohitura hauek lapurtuta izan direla konturatu naizelako da. Hau da, herriarenak ziren ospakizun paganoak elizak usurpatu eta bereak egin dituela. Adibidez, ni bizi naizen eskualdean, San Markoseko opila oparitzen diete amabitxiak haurrei. Kristautasunak jai pagano hau lapurtu eta eraldatu egin du urteekin, baina ja-

torria ez du kristaua. Beste adibide bat eta gaurkoan sakondu nahiko nukeena Atsolorrarena da. Oiarzungo herriak azken urteetan berreskuratu nahi izan duen eguna.

Atsolorra, Euskal Herriko jaiotza erritu bat da. Baserri giroan errotutako ohitura zaharra da eta emakumeen auzolana da bere esanahia. Emakume batek haur bat izaten zuenean haurrik gabeko beste emakume batzuek laguntzen zioten guztiz osatu arte eta horretaz gain, erditu ostean auzoko beste andreak gonbidatzen zituzten haurra auzoan aurkezteko asmoz. Gero eliza sartu eta

batailloarekin aurkezten ziren gure haurrak zerura eta lurrera.

Udalaren laguntzaz, duela sei urtetik hona, urte horretan jaiotako haur eta gurasoekin antolatzen da Atsolorra eta egun horretan haurra herriari aurkezten zaio, festa giroan goizean egiten den ekitaldian. Urtero egitaraua pixka bat aldatzen bada ere, ez dira falta musika, hamaiketakoak, udalaren partetik festetakoak bezalako zapia eta argazkia.

Duela bost urte etxeko haur zaharrenaren txanda izan zen. Aurten etxeko ttikienari tokatzen zaio. Ongi etorriak denak! •

**Miren Azkarate  
Badiola**

## Identitate berriak

**Antton Izagirre**

**G**arai likidoak bizi ditugu. Ezer ez da iraunkorra, sendoa. Gaurkoan ustez badenak, biharko agian forma berri bat hartuko du. Horrek ziurgabetasuna eranstean die gure uste, pentsaera eta baloreei. Aldaketak bizkor doaz eta ezertaz ziur ez egotea dakarkigu, zalantzez betetzen gaitu. Ustez erroturik genituen pentsaerak ezbaian jarriko ditugu. Berritasuna da albistea.

Atzo notizia zena biharko iragana izango da, desagertuko da albistegiarekin, beste errealitate batek ordezkaturiko du. Hori bera gertatzen ari zaigu ideia eta praktika politikoen esparruan.

Komunikabideak berritasun horretan bizi dira eta berri batek bestea estaliko du. Gaur kezka eta harriduraz hartu dugun horrek gutxi iraungo du gure imajinario kolektiboan eta horrela urratsez urrats gure nortasun eta identitateak ere zalantzan jartzera gonbidatuko gaitu.

Albisteak eta berriak iragankorrak izan arren, badira esparru politikoan betikotzea helburu duten erabakiak.

Nafarroako parlamentuan PAI programaren inguruan jaso ditugun albistegiaren gutxi iraungo dute agian albistegiaren baina erabaki horren gainean dagoen asmoa eta intentzio politikoa sakonekoa da, ibilbide luzekoa, estrategikoa, nafartarren identitatea trinkotzea eta egonkortzea helburu duena.

Asko kritikatu izan da ingelesezko eredu, agian lege urraketa suposa dezakeelako edota, beste batzuen ustez, irakasle guztiak ingelesez trebatuak eta ingelesez irakasteko gaituak izatea eskatzean, gauzatu ezina delako. Baina eredu berri honen egonkortzeak beste helmuga politikoa bat du eta hori nafar izaera, euskal izaeratik guztiz aldentu eta etorkizuneko belaunaldiak identitate berri baten aurrean jartzea bilatzen du.

Hizkuntz ereduak, hizkuntzatik harago doan herri ikuskera eraikitzen du. Euskarazko ereduaren bidetik, nafarroan ere "euskal" izaerak izan dezakeen arrakastari beldurra diote nafar eskuinak eta ezker espainolak. Horri aurre egiteko gaztelaren nagusitasuna eta "espaniar" izaera trinkotzeko helburuz, etorkizuneko belaunaldiek berezko eredutzat har dezaten naturalizatu behar duten ereduak da ezarri nahi dutena. Ez gaitzaten engaina, ingelesaren irakaskuntzaren ikuspegi kosmopolita aurrerazalearen azpian, belaunaldi berriei espaniar identitatea ezartzen jarraitzeko asmo berria dago.

Agian, horri buruzko albisteak azpimarra berezirik ez du izango, baina ondorio praktikoak herritarron kontzientzian, iruditeria kolektiboan, berezkoa balitz bezela, natural-natural, betikotzea dakar. Identitate kontua da. Horretan datza arriskua. •



Ane Baranguan pilotua usansolotarra da, baina Bedian du ibilgailua egokitzeko erabiltzen duten garajea. Marisol RAMIREZ | FOKU

## infraganti

# ANE BARANGUAN

Gero eta motor indartsuagoa duen bere BMW gorriaren ondoan egin du hitzordua GAUR8rekin Ane Baranguanek. Autoaren kontrolaren artea da Eskuko Drift Family taldeko kidearen pasioa. Arnesa finkatu eta motorraren lehen orroa entzutean, errazago ulertzen da bere ametsa: desertuaren mugagabetasunean Dakar rallyan parte hartu ahal izatea.

**A**utoak ziren Ane Baranguan haurrak gustukoak zireneko jostailuak. Txikitatik autozalea izan dela kontatu du Eskuko Drift Family taldeko kideak. Aitak autoen tailer batean egin zuen lan, bai-

na zaletasuna ez du etxekoengandik jaso. Lagun batzuk hasizien drift-aren munduan, «eta ni haien atzetik joan nintzen», azaldu du usansolotarrak. Motor-kirola ezagutu zuenetik kondukzioaren estiloan zentratzen den praktika horretan trebatzen joan da, «gero eta emakume gehiagok praktika-

tzen duten kirol batean», nabarmendu duenez. Japonian jaioa, publiko orokorarentzat ez da oso praktika ezaguna, drift txapelketek (Drift Masters) ez baitute komunikabideetan bestelako proben oihartzuna izaten. Hala ere, Euskal Herrian jarraitzaile nahikotxo dituzte.

Taldeko kideekin batera prestatutako BMW gorriaren ondoan, kaskoa eskuetan, Dakar rallya egitea bere ametsetakoa bat dela kontatu dio GAUR8ri. Dakar rallya egitea eta Drift Masters txapelketa batean parte hartzea. Basamortuaren handitasunean, hareaz inguratuta autoa askatasun osoz gidatzea «sekulako aukera» izango litzateke Usansoloko gaztearentzat. «Desertua eta topera! Autoa topera korri ahal izatea izugarria litzateke», erantzun du amets horren zergatiaren inguruan galdetuta. Erantsi duenez, lagun batek parte hartzeko aukera izan zuen, eta haren bidez jakin du te zer-nolako esperientzia den, eta bai, «pilotuen eta abenturazaleen paradisu» da hura, azpimarratu duenez.

Mundu mailan ezagunen artean kokatzen den lasterketa ospetsuan espazioaren zabal-

tasuna da pilotu baten ikuspuntutik erakargarritasunetako bat, baina ez da mugagabetasun hori bakarrik. Jendea, giroa, abentura, erremintarik gabe sortzen diren oztopoei aurre egin behar izate hori ere nabarmendu ditu. «Kable batekin zoaz, ahal duten moduan lotzen dute eta aurrera, horrela aguantatu behar! Niretzat polita da ikustea daukaten gutxi horrekin zelan moldatzen diren», kontatu du.

Esan bezala, Ane Baranguan 32 urteko usansolotarra drifting gidaria da. Irakurle askok rallyen munduarekin lotuko du praktika agian, baina ez du zerikusi handiegirik. Hasteko, drift-ean ez dira denborak neurtzen, maniobren edertasuna da epaileek baloratzen dutena. Nabigatzailean aurkitutako definizio orokor batek gidatzeko estilo gisa deskribatzen du drifting edo drift ize-

narekin ezagutzen den motor-kirola. Finean, zirkuitu batean biratzean datza, ibilgailuak mugimenduaren norabidea duen angelu bat osa dezan. Baranguanen hitzetan, drift-ean, denborak neurtu gabe, autoa gurutzatuta doan bitartean albo batetik bestera egin beharreko mugimendua da gakoa, bata bestearen atzetik egindako “tronpoen” antzera.

«Sei urte inguru daramatzat praktikatzen, ez naiz oso ona. Zirkuituan bi urte edo izango dira», zehaztu du bere ibilbidearen inguruan. Komentatu duenez, «batzuetan esaten dizute, ‘zuk derrapatu egiten duzu’, gauza baita trazatua ondo egin behar duzula». «Nik ez dut asko kontrolatzen, baina badaikit trazatuak egiten, horretan trebatzen saiatu naizelako», esplikatu du.

«Drift-ean trazatu politena egiten duenak irabazten du, epaileek trazatu onena egin duena hautatzen dute; gero batzuek deskontrolaren kontrol gisa ere deskribatzen dute drift-a, edota beste auto batekin dantzan egitea bezala», azaldu du. Beste detaile bat ere argitu du autoaren aldeetako markak adieraziz: «proba egiten den artean beste auto bat ukitu dezakezu, baina ezin da bultzatu edota desbideratu».

Bere ibilbideaz ari denean askotan aipatzen du taldea. Drift-a ez baita bakardadean praktikatzen den kirol bat. Gidariaren ondoan, autoaren prestaketan laguntzen duen taldea dago. Baranguanek azaldu duenez, gustuko du autoa bakarrik probatzea, baina normalean pilotukidea eramaten du. «Zu gidatzen zoaz, eta ondoan doan horrek animatu egiten zaitu, norbait badator ohartarazi egiten dizu... Kanpotik ikusten dutenak, berriz, auto barrutik



Eskuko Drift Family taldeko kidea da Ane Baranguan. Marisol RAMIREZ | FOKU

**European hainbat herritan daude drift egiteko guneak, «eta ez dago txarto erreflexuak lantzeko, eta, adibidez, ‘aquaplaning’ batean, erreakzionatzen ikasteko», azaldu du gidariak**

**Drift-a «tronpoekin» lotzen delako dago txarto ikusita Baranguanen ustez, baina probek bete beharreko neurri oso zehatzak dituztela dio, «eta ez dago postureo makarrarako lekurik»**

ten diren gidarien arteko harreman sendoak aipatuz. Sareetako harreman horiek gustuko dituela onartu du, askotan elkarri laguntzeko aukera izaten dutelako gidariak.

Probei dagokienez, gauzak ez daude hain ondo. Eslalomak izaten dira batik bat egiten diren erakustaldiak, baina covid-19aren izurritea heldu zenetik agendatik guztiz ezabatu direla ematen du. Lehen, besteak beste, Bedian bertan, Barakaldon edota Zamudion egiten ziren probak. Pentsa daitekeenaren kontra, probak antolatzeke ez dago zirkuitu profesional bat izan beharrik. «Parking bat izatearekin nahikoa da, ez da oso leku zabala izan behar. Adibidez, Bilbondoko parkingak berak balioko luke proba bat antolatzeke», jarri du adibide gisa.

Solasaldian, Euskal Herrian eta batez ere Durangaldean aspalditik dagoen rallyekiko zaletasun handia aipatu dugu. Komentatu duenez, baserri askotan gorde da zaletasun hori. Azken bi urteetan lasterketa bakar batzuk bakarrik egin ahal izan badira ere, espero du orain proba gehiago berreskuratzen hasiko direla, eta «ea gazte gehiago ere hasten den».

#### GERO ETA MOTOR INDARTSUAGOA

“Txuu Hippie Drift” idatzita duen itzelezko BMW gorria tailer txiki baten itxura duen gargean gorde du. “Txuu” hori Ane-txutik datorrela kontatu du. “Angel, beti gurekin” ere irakur daiteke autoaren aurrealdean. Zendu zen lagun handi bat omentzeko jarri zuten. «Gaixotu egin zen, drift-a oso gustuko zuen eta haren oroimenean jarri genuen», azaldu du.

800 euroan erosi zuen auto horren ondoan motorraren hainbat atal daude pilotuta. Azaldu duenez, etengabe egoki-

ikusten ez diren gauzak ikusten dituzte, autoa izaten ari den erantzuna...».

Euskal Herrian drift-ak duen jarraipenaz galdetuta, jarraitzaileak badituela aipatu du. «Praktikatzen duen jende asko dago eta, gainera, gero eta neska gehiago», azpimarratu du, askotan sare sozialen bidez egi-



Gazte usansolotarrak drift-a praktikatzeko guneak egokitzea aldarrikatu du, gazteei beste aukera batzuk eman eta bestelako zaletasun batzuk bultzatzeko. Marisol RAMIREZ | FOKU


tzen dute autoa ondoren probetan onena eman ahal izateko. Motorra ere piztu du eta daukan soinuak zirkuitu batera eramaten zaitu nahi gabe ere. Abiadura palanka eta eskuko frenoak ez dira ohiko ibilgailuetakoen modukoak. Berezi prestatuta daude drift gidatze estilora. Motorrak har dezakeen temperatura altuak direla eta, aire-sorgailu bereziak ditu autoak, baita elektrizitatea guztiz mozteko sistema ere, suteak prebenitzeko.

Motorrek egiten duten zarata handiagatik eta autoa probatzeko leku seguru bat behar delako, entrenamenduen zati bat simulagailu bidez egiten dute, zirkuituan autoa probatzeko egindako saioez gain. Kirolak, dionez, ez dauka adinik. Nabarmendu due-

nez, bederatzi urteko gaztetxo batek goi mailako emaitzak lortu ditu simulagailuetan, gidari handien pare, eta autoan berarentzat egokitutako jesarlekua jartzeko asmoa dute.

Halere, gainontzeko motor-kirolak bezala, arriskuari lotuta doa askotan drift-a ere, eta ez da bidezkoa Baranguanen ustez, «arazoa da zelan komunikatzen duzun, beste kirol askotan ere gertatzen baitira istripuak. Drift-ak, gainera, arau zehatzak ditu». Dakarrean edota Ingalaterrako zirkuitu handi batean, Baranguanek atzerako ispilua alde batera mugitu eta lasterketan «gauzak ondo egitea» du amets.

Nerea Goti



Agenda betetzen ari zaio taldeari. Ekainean, adibidez, hitzordua dute Miranda de Ebron. Marisol RAMIREZ | FOKU



**Maider Azanza Sese**

Donostiako UPV/EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

## Software berdea, guztion erronka

osasuna / harremanak / teknologia

3 BEGIRADA:

**N**azio Batuek definitutako garapen jasangarriko hamazazpi helburuen barruan, hamabigarrena kontsumo eta ekoizpen jasangarria bermatzea da. Ba ote du loturarik horrek softwarearekin? Azken finean softwarea ez da fisikoa den zerbait. Bere ekoizpen eta kontsumo jasangarria kontuan hartu beharko genituzke? Erantzuna baiezkoa da, noski. Egunero erabiltzen dugun softwarea exekutatzeko duten gailuek energia kontsumitzen dute. Askok softwarea eta informazio teknologien erabilera etengabe hazten ari dira, gure gizartea martxan mantentzeko eta gure bizitza kudeatzeko. Baina hazten doazen neurrian energia eskaria ere lehertzen ari da. 2030erako, datu zentroek bakarrik mundu mailako elektrizitatearen %10 kontsumituko dute. Horri Internet, telekomunikazioak eta sistema txertatuak gehitzen badizkiogu, energia kontsumoa mundu mailako eskariaren herena izango da. Argi dago bide hori ez dela jasangarria. Zer egin dezakegu? Berehalako ekintza energia berriztagarriagoa erabiltzea da. Energia kontsumo altuko enpresak, Microsoft, Google eta Amazon esaterako, ur, eguzki edo haize energietan inbertitzen ari dira, adibidez, datu zentroak hozteko. Baina energia berriztagarriak erabiltzeak sintomak besterik ez ditu sendatzen. Ez du konpontzen energia murriztu beharra.


**Erabiltzaileek guk eskaintzen duguna kontsumitzen dutela jakinda, lehen ardurak softwarea ekoizten dugunona da, softwarea garatzen duen komunitatearena.** Ardurak ekologikoak gure lanaren oinarri nagusi bihurtu behar du.

Garatzen dugun kode lerro bakoitza hemendik urte askotara milaka prozesadore desberdinetan exekuta daiteke, energia kontsumituz eta klima aldaketara lagunduz.

Software berde edo *Green IT* delakoak, software garapenaren inguruko paradigma aldaketa proposatzen du. Horri jarraituz software ingeniariak, garatzaileak eta software garapenarekin lotutako gainontzekoak beraien soluzioak eta zerbitzuak efizienteagoak egiten saiatzen dira energia kontsumoaren aldetik. Hori lortzeko erabiltzen diren neurrien adibide dira softwarea hodeira eramatea, hardware ekologikoagoa erabiltzea, softwarearen azterna ekologikoa diseinatzen dugun momentutik kontuan hartzea eta softwarea bere testuinguruaz jabetzeko gai izateko sortzea, bere energia

kontsumoa doitzeko gai izan dadin.

**Eta softwarea garatzen ez dugunok, zer egin dezakegu?** Azken finean guk beste batek egindako softwarea kontsumitzen dugu. Kasu honetan softwarea erabiltzeko ditugun gailuetan dago gako nagusia. Gailu berri bat erosteko orduan benetan behar ote dugun edo zaharra erabiltzen jarrai dezakegun pentsa dezakegu. Eta erostea erabakiz gero, fabrikazio prozesuan birziklatutako edo gutxi degradatzen diren materialak erabiltzen diren edota energia kontsumoa begira ditzakegu. Gailuen erabilerari dagokionez, erabili behar ez ditugunean itzali edo deskonektatzea gogora dezakegu. Aldiz, gailuak jada gure beharrak betetzen ez dituzenean, ondo badago, beste norbaitentzat erabilgarria izan daitekeen pentsa dezakegu, eta, ez badago, era egokienean nola eta non bota ikertu dezakegu. •



Softwarea ere energia kontsumoarekin lotuta dago.

JuanCarlos RUIZ | FOKU

# BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



KUTXATEKA. PHOTO CARTE FUNTSA. RICARDO MARTIN

## TORIBIO ALZAGA ANTZOKI ZAHARREAN

Donostiako Udalak Euskal Deklamazio Akademia jarri zuen abian 1915ean, euskarazko antzerkiari laguntzeko. Avelino Barriola zinegotzi eta antzerki lanen egilea izan zen ekimen haren sustatzailea. Akademiako lehen zuzendaria Toribio Alzaga (1861-1941) izan zen, 30 lan baino gehiago idatzi eta itzuli zituen antzerkigilea. Halaber, hiru opera idatzi zituen, eta horietako bi, "Txantxon Piperrri" eta "Anboto", Buenaventura Zapirain konpositore lekeitiarrak musikatu zituen. Euskal Deklamazio Akademia euskal antzerki eskola bihurtu zen. Toribio Alzaga "Euskal-erria" aldizkariko zuzendaria eta euskaltzain osoa ere izan zen. Frankistak Donostian sartu zirenean, Euskal Deklamazio Akademia itxi eta haren zuzendari Toribio Alzaga Ondarretan espetxeratu zuten. Argazkian, Toribio Alzaga agertzen da, erdian, 1916ko abenduaren 21ean Euskal Deklamazio Akademiako kide batzuekin Donostiako Antzoki Zaharrenean kanpoaldean, Katalina Eleizegiren "Garbiñe" obra antzeztu aurretik. Antzeztlanak kritika onak jaso zituen, eta garaiko prentsak azaldu zuenez, publikoaren artean zegoen egileak agertokira igo behar izan zuen amaieran, ikusleek behin eta berriz txalotzen baitzuten.

# bidaiari

naiz:-en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde  
berrietara  
goaz



dagoeneko  
zure  
kioskoan  
salgai

1,50€

**eta gainera...**

**SLAB CITY**  
BASAMORTUKO  
OKUPAK

**CUSCOTIK TITICACARA**  
ALTIPLANOAN,  
MUGARIK GABE

**LLEIDA**  
PIRINIOAURREA  
LAKUETAKO TRENEAN

**KIVU LAKUA**  
EGUNEROKOTASUNA  
ARRISKU BIHURTUTA

**PEÑA OROEL**  
PIRINIOETAKO  
BERIAIN

**Bertatik bertara** Itsasmuseum, Bizkaiko itsas tradizioan nabigatzeko aukera **Egin planak** Gervasio Sanchezen "Bizitza"; FANT; Herri Urratsen "Itzulera"; Leioako Umore Azoka **Munduan pasieran** Cosquer; Komogel Meskitan, "auzolana"; Berlingo Fruit Logistica Azoka; Darwinen "Bizitzaren zuhaitza"; Nakagin Capsule Tower, eraitsita; Karl Lagerfeld, Coca Cola botila batean...

